NAFARROA ARKEOLOGIA AUZOLANA

Arriaundi mendiaren tontorrean egiten ari diren arkeologia-indusketetan, emakume batek Larrahe jainko baskoiari eskainitako harrizko aldare bat berreskuratu da. Aurkikuntza garrantzitsu hau Doneztebeko Erdi Aroko monasterioaren inguruan Larunbeko tokiko komunitateak sustatzen dituen lanen testuinguruan gertatu da

LARUNBE

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ayuntamiento de Iza
Izako udala

aranzadi
zientzia elkartea

K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

LARRAHE

2

LARRAHE

K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Arrapindika tontorrera igotzen. 📷 2023.01.20 I. Egia.

AUZOLANA

Argitalpen hau Larunbeko herria osatzen duten pertsonen komunitate osoari eskainia dago. Adibide eredugarria da bizikidetzarako, kultura-ondarearekin identifikatzeko eta auzolanean lan altruista egiteko. Eta garrantzitsuena da balio horiek belaunaldi gazteenen artean bultzatzen jakin duela.

LARUNBE

NAFARROA ARKEOLOGIA AUZOLANA

Argitaratzen du: Sociedad de Ciencias Aranzadi Zientzia Elkartea.
Donostia-San Sebastián.

Argitaratzailea: Juantxo Agirre-Mauleon.

Testuak: Mendizabal, Oihane; Esain, Peio; Velaza, Javier; Gorrochategui, Joaquín; Aiestaran, Mattin; Pescador, Aitor; Narbarte, Josu; Ruiz, Daniel; Legorburu, Mikel; Ibero, Iker; Aranburu, Arantza; Damas, Laura; Martinez, Blanca; Iriarte, Eneko; Puldain, Jabier; Gartzia, Ekhine; Alonso, Euken; Edeso, Mikel; Agirre-Mauleon, Juantxo.

Argazkiak: Egaña, Juantxo; Erviti, Iosu; Egia, Iñigo; Alonso, Euken; Agirre-Mauleon, Juantxo.

Azaleko argazkia: Egaña, Juantxo.

Topografia: Alonso, Euken.

Ilustrazioa: Landa, Juan Luis (pag. 95); Larratxe, Joseba (pag.105).

Diseinua eta maketazioa: Tamtam S.L.

Inpresioa: Michelena Artes Gráficas S.L.

Bilduma: Nafarroa Arkeologia Auzolana 2(II)

ISSN 2952-0924
ISBN 978-84-17713-98-0
D.L. D 00464-2024

Informazioa: www.aranzadi.eus

Ikerketaren sustatzaileak:

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ayuntamiento de Iza
Izako udala

aranzadi
zientzia elkartea

Kolaboratzaileak:

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIVERSITAT DE BARCELONA

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

SOT

UNIVERSIDAD DE BURGOS

UPPSALA UNIVERSITET

LARRAHE

K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

Larunbe
2024

LARUNBE

aurkibide orokorra

1.- Aurkezpena 06

2.- Geografia fisikoa eta giza geografia 10

3.- Aztarnategia 18

4.- Indusketa arkeologikoa 30

5.- Testuinguru historikoa eta kulturala 42

5.1.- Baskoniako testuinguru orokorra aro aldaketa inguruan 44

5.2.- Erromatar garaia Arriaundin 46

6.- Larunbeko aldarea 52

6.1.- Erregistro arkeologikoa 54

6.2.- Larunbeko aldarearen ezaugarriak 70

6.3.- Lehengaia eta karakterizazio petrologikoa 78

6.4.- Testu epigrafikoa 82

6.5.- Larrahe, jainko-jainkosa baskoia 88

7.- Erlijioa eta epigrafia erromatar munduan 94

8.- Ondorioak 102

9.- Ikertzaile taldea 108

10.- Bibliografia 116



1

AURKEZPENA



LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

IDATZIZKO MEMORIA

Itza Zendeako Udaletik mirespenez ikusi dugu Larunbeko bizilagunek urte hauetan guztietan indusketa arkeologikoak egiteko eta Arriaundi mendiaren tontorrean aurkitutako aztarnak sendotzeko izan duten ilusioa eta kemena. Udal ardurak ditugunontzat, oso garrantzitsua da herritarrek udalarekin duten inplikazioa, erakundeek bakarrik ezin baitute guztiok nahi dugun gizarte-ongizatea eta aurrerabidea sortu. Horregatik, ahal dugun neurrian, ikerketak eta horien gizarteratzea bultzatu ditugu, Erdi Aroko monasterioari eta erromatar garaiko aldareari buruzko argitalpen hauen bidez.

Gure udalerriaren lurraldea Iruñerriaren iparraldean kokatzen da, Sakanako pasabidearen lotunean eta bertatik Arabako Lautadaraino iristeko aukera ematen du. Hori dela eta, Antzinaroan erromatar galtzadek, Erdi Aroko bideek, ondoren errege-bideek eta gaur egungo AP-15 autobideak zeharkatu dituzte. Horren guztiaren emaitza gara, komunikazio-bideen ertzean gaude, historian zehar joan-etorri horien eragina jaso dugu. Ziur aski, Erroma izan zen Europaren globalizazioa hasi zuen lehen potentzia eta bere galtzaden bidez lortu zuen hori hein handi batean, gure udalerria zeharkatzen zuenaren antzerakoen bidez, baita kultura idatziaren bitartez ere. Horri esker, pieza arkeologiko hau gure idatzizko memoriaren zati oso garrantzitsua bihurtu da.

Arriaundiko indusketetan berreskuratutako harrizko aldarea gure udalerriaren historiako lekukotasun idatzirik zaharrena da, eta, alkate naizen aldetik, aurkikuntza honek zirrara berezia eragiten dit, emakume batek agindu zuelako egitea. Bere izen-abizenekin ezagutzen dugu. Idatzizko dokumentazioan ez dira ugariak emakumeen aipamenak, ezta euskararen presentzia ere. Horregatik, arkeologia pieza honek garrantzi bikoitza du: emakume batek latinez idatzitako testu baten bidez jainko baskoi bati harrizko aldare bat eskaintzen baitio.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Nafarroako Gobernuari monografia hauek argitaratzeko emandako laguntzagatik, Larunbeko kontzeju eta bizilagunei auzolanean egindako lanagatik, ikerketa-taldeari eta Aranzadi Zientzia Elkarteari liburu honen edukiak sortzeagatik. Guztion artean eraikitzen baitugu gure kultura-ondarearen etorkizuna eta gure herriaren ongizatea.

Floria Pistono Favero
ITZAKO ALKATEA



Auzolaneko taldea Floria Pistono alkatearekin. 2021. J. Agirre.



2

GEOGRAFIA FISIKOA ETA GIZA GEOGRAFIA



Larunbe Nafarroako kontzeju bat da, Gulinako Haran historikoari dagokiona, eta 1942tik Itzako Udalaren parte da, Itza Zendearen eta Gulina Haranaren fusioz osatua. Ingurune fisiko menditsua du, eta isurialde Atlantikoko klima hezeenaren eta erdialdeko Nafarroako klima lehorrenaren arteko trantsizio-eremuan da. 2023an, Itzak 1.330 biztanle zituen, hamahiru kontzejutan banatuta: Aginaga, Aldaba, Aritz, Atondo, Zia, Erize (udal-egoitza), Gulina, Itza, Larunbe, Lete, Otsobi, Sarasa eta Sarasate. Hiru gune populatu ere baditu Aldatz, Orderitz eta Zuasti.

Udalerriak 52,03 km^2-ko azalera du eta mugakide ditu: iparraldetik, Imotz; ekialdetik, Txulapain, Berriobeiti, Orkoien eta Arazuri (Oltza Zendea); hegoaldetik, Oltza Zendea; eta mendebaldetik, Ollaran, Arakil eta Irurtzun. Iruñerriko iparraldeko sarreran dagoenez, A-15 autobideak, N-240A errepideak eta Iruñea-Altsasu trenbideak zeharkatzen dute. Antzinan, Zia, Aginaga, Gulina, Larunbe eta Sarasate kontzejuek osatzen zuten Gulina Harana.



LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Itzako udalerria; beheko eskuineko angeluan Iruñea ikusten da.





Larunbeko herrigunea 570 metroko altueran dago, Arrieta, Astazubi eta Sarriaga errekek zeharkatzen duten haran txiki baten goialdean, eta Gulinako errekastoarekin bat egin ondoren, azkenean Arakil ibaiarekin bat egiten du. Bere 7,1 Km²-ko azaleran, Arriaundi mendia da nagusi, puntu altuena baita 942 m-ko garaierarekin. Kontzejua Larunbe, Larraintziz eta Oraien auzoek osatzen dute. Iruñeatik 15 km ipar-mendebaldera dago, eta Irurtzundik 5 Km hegoaldera. Azken honekin harreman estua du gertutasunagatik.

N

ARRIAUNDI

LARRAINTZIZ

LARUNBE

OSINAGA

0 100 200 300 400 m

Larunbeko herrigunea.
Magalean gora Arriaundiko
gailurra. 2019. I. Erviti.



3

AZTARNATEGIA



Aztarnategi arkeologikoa Arriaundi mendiko gailurrean kokatzen da, 942 m-ko garaierako tupa-kareharrizko haitz handi batean. Puntu horretatik, Arakil ibaiaren haran osoa kontrolatzen da, Aizkorri mendilerroa, Iruñerria eta baita bi bailarak lotzen dituzten pasabideak ere (Oskia-ko pasabide izenez ezagutzen dena, adibidez). Hortaz, kokapen estrategiko pribilegiatua du, baina bere presentzia ez da hain argi ikusten inguruko orografiaren testuinguruan, non garaiera eta presentzia handiagoko tontorrak dauden nahiz eta irisgarritasun txikiagoarekin, hala nola Erga, Gaztelu edo Txurregi.

Aztarnategiaren kokapen geografikoa lehen aipatutako Arriaundiko haitzean dago (UTM30N X: 601984 eta Y: 4751698 koordenatuak). Hego-ekialdeko hegal osoan kareharrizko erorketa du, amildegia, eta ondorioz, zonalde horretatik iritsezina da. Iparraldean, ordea, magala maldan behera doa, antzinako zalditeriarentzat eta gurdientzat irisgarria izanik.



2024. M. Aiestaran.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Arriaundiko haitza, Oskia pasabidea, eta atzerago, Sakanako korridorearen hasiera. 2014. Aerodik.

Horregatik guztiagatik, puntu horretan kokaleku bat sortzeko erabakiak kontrolgune garbi bat ezartzeko interesari edo premiari erantzungo lioke, bai Iruñerriaren mendebaldeko sarrerari dagokionez, baita Arakil haranaren amaierari dagokionez, ere. Inguruko orografiari esker, kokalekuak 360°-ko ikuspegi periferikoa ahalbidetzen du tontorrean, beraz, inguru geografiko zabala ikus daiteke, baina batez ere Sakanako korridorearen eta Iruñearen arteko komunikazio bisuala azpimarratu beharko litzateke.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Panoramika Arriaunditik hego-mendebalderantz. Puntu honetatik, Sakanako korridore osoa bisualki kontrolatzen da Aizkorri mendilerroraino, bertatik igarotzen zen *iter* XXXIV erromatar galtzada. Erdi Aroan lotura bisuala zuen Txurregi gazteluarekin, Gaztelu mendiarekin eta Aralarko San Migel monasterioarekin. **2024. I. Egia.**

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Panoramika Arriaunditik hego-ekialderantz. Puntu honetatik *Pompelo*, erromatar garaiko gune nagusia, bisualki kontrolatzen da, eta Erdi Aroan, inguruko gaztelu garrantzitsuenak: Miravalles, Irulegi, Tiebas eta Garaño. 2024. I. Egia.



2024. M. Aiestaran.

Aztarnategi arkeologikoa Arriaundi mendiaren tontorraren ingurura mugatzen da, San Gregorio ere deitua izan dena, azken ermitaren erlijio-izenari erreferentzia eginez. Gailurraren goiko aldea mendiko belardi edo larreak ditu, eta altuera jaisten den heinean, pagadi-basoek iparraldeko hegal osoa estaltzen dute.

Lortutako emaitzei esker, kokalekuaren erdigunea zehaztu eta deskribatu ahal da, gutxi gorabehera 0,3 ha-koa (2. eremua) eta bere barnean monasterioa kokatzen da, 300 m^2-ko azaleran (1. eremua). Ingurua, 0,2 ha-ko hedadura duen harrobiak (3. eremua), gailurraren hego-mendebaldean, eta aztarnategiaren iparraldeko magalak (4. eremua) osatzen dute, guztira 1,5 ha inguruko azalera osatuz.

Beraz, gaur egun eskuragarri ditugun datuen arabera, aztarnategi arkeologikoa lau eremutan banatu da:

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



2024. M. Aiestaran.

1. Eremua: monasterio erromanikoa eta ermiten ondorengo lanekin zerikusia duten eraikuntzak barne hartzen ditu.
2. Eremua: gailurraren inguruan dagoen zelaiguneak osatzen du. Bertan, eraikuntza egituren zantzuak eta lurraren aldaketa antropikoak dokumentatzen dira, oraindik guztiz zehaztu gabe daudenak eta aztertzen ari direnak. Eremu horretan, harresi lerro baten eta balizko lubanarro baten trazadura dokumentatzen den mendi-mazelaren zati bat ere sartzen da.
3. Eremua: harrobi bat da, harri-koskor ugarikoa, eta eragin antropikoak ditu substratu geologikoaren azaleratzeetan.
4. Eremua: malda handiagoko lursaila, baina mendi-hegalaren garapen naturalean aldaketa antropikoen zantzuak ere antzeman dira.

DONEZTEBEKO ERDI AROKO MONASTERIOA

Arriaundi kultuarekin lotutako gune baten bilakaera ezagutzeko aztarnategi bikaina da, hainbat fase biltzen baititu bere baitan: erromatar garaian hasi (agian Burdin Aroaren amaieran), Antzinaro Berantiarrean zein ia Erdi Aro osoan zehar jarraitu eta Aro Modernora iristen baita. Gainera, kokalekuaren ezaugarriek, hego-ekialdeko eremutik erraz defenda daitekeen eta menderaezina den muinoa izateak zein Iruñerrira sartzeko bide nagusietako baten kontrol bisualak, leku erakargarri bihurtu zuten hainbat garaitan.

Egiten ari diren esku-hartze arkeologikoek aztarnategiaren ikuspegi gero eta osoagoa eskaintzen dute. Horri esker, gunea erromatar garaitik aurrera okupatua izan zen, K.o. I. mendetik IV. mendera bitartean, eta ordutik aurrera, Erdi Aroaren hasierara arte, aldizkako okupazioen segida izan zuen.

Baina Iruñeko erresumaren politiken testuinguruan, XI. mendearen amaieran, San Estebani eskainitako monasterio bat eraikitzea agindu zen, aztarnategiaren erdigunea zehazten duena, eta hari dagozkio gaur egun arte kontserbatu diren eraikuntza aztarna garrantzitsu gehienak. Monasterioak hiru nabe eta hiru absideko burualdea ditu, estilo erromanikoaren simetriak eta ezaugarriak erabat betetzen dituztenak. Haren erreferentzia zuzenena Aralarko San Migel monasterioa da. Harekin bisualki komunikatuta egoteaz gain, elkar partekatzen dituzte altuerako kokapena eta zenbait ezaugarri arkitektoniko. Beraz, orain arte ezezaguna zen monasterioaren kokapenaren aurkikuntza, lehen mailako ekarpena izan da Nafarroako erromanikoaren arkitektura aztertzeko.

Doneztebeko monasterioak ez zuen beste monasterio batzuen garapen arrakastatsurik izan, Aralarkoak edo Iratxekoak bezala, baina tokiko gurtza-zentro bilakatu zen baseliza bihurtuta eta XVII. mendera arteko iturri idatzietan haren aipamenak daude. Une horretan, San Gregorio Ostienseren, uztak babesten zituenaren, izena erantsi zitzaion, beste ermita bat eraikiz eta azkenean, San Estebanen jatorrizko gurtza ordezkatuz. Monasterioan eta ondorengo ermitaren eraikuntzan egin ziren mantentze lanek eta berrikuntzek, arrastoa utzi dute aztarnategiaren estratigrafia arkeologikoan.

Diziplina anitzeko talde bat monasterioaren azterketa arkeologikoa eta historikoa garatzen ari da, horri buruzko monografia bat idaztearekin batera. Horretarako, Carlos Martínez Álava ikertzailearen laguntza dute, Nafarroako erromanikoan aditua. Hurrengo orrialdean agertzen den monasterio erromanikoaren berreraikuntza Iker Iberok marraztu du, bere aholkularitzarekin. Horrela, ikuspegi grafikoa eskaintzen diogu irakurleari, XI. mendeko monasterioaren errealitate arkitektoniko ulergarriago honi esker.

Hortaz, Larunbeko aldarearen eta Doneztebeko monasterioaren aurkikuntzek, aztarnategi honek denboran zehar izandako erlijio sinesmen anitzekin izandako lotura berresten du.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Doneztebeko monasterioaren oinplanoa. 2021. I. Erviti.



XI. mendeko monasterioaren berreraikitzea. 2024. I. Ibero.



4

INDUSKETA ARKEOLOGIKOA



Esku-hartze arkeologiko ororen abiapuntua, iragana aztarna materialen bidez ezagutzeko eta ikertzeko nahia da. Aztarnategi honetan, 2008an, Larunbeko tokiko komunitatea izan zen Arriaundi mendiaren tontorrean lurpean gorderik zeuden iraganeko sekretuak ikertzeko ekimena martxan jarri nahi izan zuena, bailara osoan erreferente den mendi gailurra baita. Ikerketa arkeologikoa 2010. urtean jarri zen abian, arlo horretan indarrean dauden lege xedapenei jarraiki Nafarroako Gobernuaren baimenarekin, eta tokiari egokitutako metodologia zientifikoak aplikatuz. Hasieratik, baliabide ekonomikoen eskasiak baldintzatu du jarduera hori, eta urte hauetan guztietan, "arkeologia soziala" deritzon korronteari jarraitzen dion programa bat garatu da, non tokiko komunitate osoak auzolanean aktiboki lagundu duen (auzolana). Proiektu hau, hainbat unibertsitate eta ikerketa zentrotako espezialisten parte-hartze altruistari esker aurrera atera ahal izan da.

Arriaundiko ikerketa arkeologikoan, lur-azaleko miaketa, miaketa geofisikoa eta zundaketa geoarkeologikoak egin dira, metodologia desberdinen hurbilketa bateratua aplikatuz. Lan egiteko metodologia honek, eskualde mailako antzeko beste esperientzia batzuen adibide arrakastatsuak bildu eta jarraitu ditu.

Aipatzekoa da aztarnategiaren aipamen bibliografiko bakarra Javier Armendáriz Martijarena dela, "De aldeas a Ciudades" izeneko bere erreferentziazko lanean, Nafarroako Burdin Aroko aztarnategi gotortuen katalogoan Arriaundiko aztarnategia aipatu baitzuen (Armendariz, 2008: 223-227). Bertan, Burdin Aro amaierako aztarnategi gotortu bat zegoela adierazi zuen, gainean Erdi Aroko aztarnategi bat zuena. Mende batzuen ondoren, Aro Modernoan ermita batean bilakatu zela dio adituak.



Eraikuntza aztarnak erakusten dituzten lehen landa-marrazkiak.
2010. J. Puldain.

LUR-AZALEKO MIAKETA

Lehen urrats metodologikoa, lur-azaleko miaketa sistematiko bat egitea izan zen, hautemandako ezaugarri ezberdinen arabera aztarnategiaren hedadura mugatzeko eta eremu desberdinetan sailkatzeko helburuarekin. Aztarnategiari buruzko lehen hipotesiak zirriborratzen lagundu zuten gainazaleko material arkeologiko batzuk bildu ziren eta horrekin batera, tontorrean ikus zitezkeen eraikuntza aztarnen lehen dokumentazio topografikoa egin zen. Aldi berean, Aitor Pescador historialariak aztarnategiari buruzko iturri idatzi guztiak bilatu zituen horretarako, hainbat artxibotan begiratuz eta ikertuz.



Arriaundiko gailurra esku-hartze arkeologikoa egin aurretik. 2008. J. Agirre.



Lehen datu topografikoen bilketa. 2008. J. Agirre.

MIAKETA GEOFISIKOA

Arkeologiari aplikaturiko miaketa geofisikoak, lurrazalean egindako neurketen bidez aztarnategi arkeologikoak modu ez suntsitzailean bilatzeko eta bereizteko aukera ematen duten teknika fisikoen multzoa biltzen du. Metodo geofisiko ez suntsitzaileen bidez, lurpeko ezaugarriak aztertu eta hura osatzen duten materialen propietate fisikoak neurtzen dira, eta, horrela, lurpeko erradiografia bat lortu daiteke, aztarna arkitektonikoen eta depositu arkeologikoen kokapenari eta formari buruzko informazioa ematen ohi duena.

Arriaundi mendiaren tontorrean, miaketa geofisikoko teknika desberdinak erabili ziren 2010eko abuztuan. Gailurraren hedaduraren zati handi bat bi prospekzio eremutan egin zen, batetik gradiometro magnetikoaren bidez (3000 m²) estratigrafia interesgarria izan zezaketen eremuak kokatzeko, eta bestetik georadar profil xumeen bidez eremu horien dimentsio bertikala ebaluatzeko.



Aipatu behar da teknika horiek ikuspegi arkeologikotik ez zutela emaitza egokirik eman, lurpeko sedimentuaren ezaugarri fisikoengatik eta arroka naturalaren azaleratzeak gainazalarekiko zuen hurbiltasunagatik. Aztarnategiaren erdialdean, geroago monasterioren hormak aurkitu ziren tokian, ezin izan zen erabili, lurraren irregulartasun handiagatik.

Gainera, mendi tontorraren higaduraren faktore geologikoa sedimentuaren metaketa baino indartsuagoa izan denez, bertako potentzia estratigrafiko eskasak ez du lagundu miaketa honek substratu arkeologikoaren irudi garbirik eskaintzen.



Miaketa geofisikoen emaitzen irudiak. 2010. SOT.



Ekhine Gartzia miaketa geofisikoak zuzentzen. 2010. J. Agirre.



Miaketa geofisikoen lanak. 2010. J. Agirre.

ZUNDAKETA GEOARKEOLOGIKOAK

Zundaketa geoarkeologikoak eskuz edo mekanikoki egiten diren eta lurraren ezaugarriak ezagutzeko egiten diren azterketa geologikoen teknika mota bat dira. Diametro txikiko (5 cm) eta hainbat metroko sakonerako zundaketak dira, eta, zundatzeko makinaren arabera, zundatutako lurraren erregistro estratigrafikoa ikusteko eta lagintzeko aukera ematen dute. Horietatik laginak hartzeko lekukoak lor daitezke, eta horietan hainbat analitika egin.

Lehen aipatu diren miaketetan lortutako informazioan oinarrituta, 2023an bost zundaketa geoarkeologiko egin ziren. Kronologia desberdinetako hainbat aztarnategitan erabilia izan eta arrakastatsua izan den metodologia honek, induskatu gabeko eremuetan sekuentzia geoarkeologikoaren sakonera eta aztarnategiaren estratigrafia aztertzea ahalbidetzen du. Bestalde, lur-azaleko eta geofisikako miaketetatik ateratako ondorioak balioztatzeko ere balio du teknika honek.



Erauzketa lanak eta egindako zundaketa geoarkeologiko baten adibidea. 2023. J. Agirre.

Atarian egindako zundaketaren kasuan izan ezik, beste zundaketa geoarkeologikoek, prospekzio geofisikoek bezala, monasterioaren aztarnen ondoko eremuaren garapen estratigrafiko eskasa erakutsi zuten, higadura faktore geologiko gisa lehenesten duten tokien ezaugarri tipikoa. Hala ere, prospekzio teknika ez suntsitzaile horiek guztiak aldez aurretik egin izanak, garrantzi metodologikoa du; izan ere, aplikatu ondoren bakarrik baloratu ahal izan dira modu frogagarrian Arriaundiko aztarnategiarentzat erakusten zuten egokitasuna.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

INDUSKETA ARKEOLOGIKOA

Arkeologia-indusketa leku jakin batean sortzen diren estratigrafia naturalak eta antropikoak (giza jarduerak sortuak edo eraldatuak) aztertzeko prozesua da. Indusketa prozesuaren oinarria, deposituak osatzen joan diren alderantzizko ordenan kentzean datza. Ondorioz, jarduera suntsitzailetzat hartzen da, hau da, indusketa bat egiten den bakoitzean, deposituen jatorrizko posizioa ezabatzen da. Horregatik, funtsezkoa da aztarnategi baten erregistroa osatzen duten elementuak xehetasunez dokumentatzea eta erregistratzea. Arriaundin, indusketa metodoa estratifikazio maila natural eta antropikoetan eta eraikuntza egituretan oinarritzen da eta eskuzko indusketaren bidez gainjartze, elkartze, alderantzikatze eta intrusio estratigrafikoaren printzipioak hautematean datza (Carandini, 1997; Harris, 1991; Mola, 1991). Horretarako, arkeologia-indusketaren ohiko prozedurak erabili dira (Ruiz-Zapatero, 2013) eta indusketa eremuetan agertutako objektu identifikagarrien artean material berezienak geoerreferentziatu dira, horien artean argitalpen honen aurkezten den pieza.

Miaketa geofisikoen ondoren, indusketa arkeologikoak 2010ean hasi ziren, neurri txikiko bost kata edo miaketa-zulo eginez, aztarnategia mugatzeko eta aztarnategiaren zonalde guztietako estratigrafia arkeologikoa ezagutzeko. Zundaketa horietatik guztietatik, 2. zundaketan eraikin erlijiosoaren hego-mendebaldeko izkina dokumentatu zen, ondoren monasterioaren 200. eremua deituko dena. Zundaketa hori da handitzen joan dena ondorengo kanpainetan, Erdi Aroko monasterioaren barruko espazioak azalera osoan induskatuz.



1 Zundaketa: sedimentuaren potentzia txikia eta haitzaren azaleratzea egiaztatzen dira. 2010. J. Agirre.

Ondorengo kanpainetako arkeologia-lan nagusia, Erdi Aroko aztarnategiaren aztarna arkitektonikoak dokumentatzea izan da, sekuentzia estratigrafikoarekin eta okupazio faseen karakterizazioarekin batera. Alde horretatik, lanak monasterioaren hainbat eremutako indusketetan zentratu dira eta prozesuan material arkeologiko andana berreskuratu da. Lortutako C14 datazioen bidez, eskualdeko testuinguru kronologiko eta kulturalarekin lotu da material hori. Eraikin erlijiosoaren barneko eremutan zentratu ziren jarduketak.



Ikerketa arkeologikoaren espazio antolamendua eraikinen barruan. 2017. P. Esain; I. Erviti.

2011. urteaz geroztik, Aro Modernoko ermitaren eta Erdi Aroko monastegiaren egituren ikerketan oinarritu dira arkeologia lanak eta argi eta garbi erregistratu dira kanpoko mugak eta barruko espazioak (Agirre-Mauleon, 2024). Indusketak egin bitartean, harri-koskor metakinak edo deposituak altxatu dira (neurri eta forma irregularreko harri-hondakin txikiak), tartean sedimenturik gabekoak. Geruza honek barneko espazio guztiak betetzen zituen, azpiko geruza edo maila arkeologikoetaraino. Arreta deitzen du kalitatezko harlanduzko material gutxi egoteak. Zentzu horretan, ahozko tradizioaren arabera, kultu-funtzioa galdu ondoren, harlandu horiek atera eta inguruko herrietako eraikuntzetan berrerabili ahal izango ziren. Kultura materialari dagokionez, Erdi Aroko eta Aro Modernoko material zeramiko, metaliko eta numismatikoak dokumentatu dira.

Hala ere, Arriaundi mendian Erdi Aroaren aurretik ere bizi izan zirenez, Erdi Aroko mailak induskatu eta agortzen joan diren heinean, zenbait tokitan, aurreko garaietako mailak dokumentatu dira. Horregatik, erromatar garaiko maila horien karakterizazio estratigrafiko egokia ere burutu da. Maila horiek erradiokarbono bidez datatu dira eta bat datoz hainbat elementu arkeologikoren tipologietatik lortutako kronologia erlatiboarekin, agertutako zenbait elementu bereizgarriak baitira aztergai dugun eremuko testuinguru kronologiko eta kulturalean.



Monasterio multzoaren airetiko argazkia. 2020. I. Erviti.

Larunbeko kontzejuaren helburu nagusietako bat Doneztebeko monasterioaren eta San Gregorio ermitaren aztarnak berreskuratzea eta bailioa ematea izan da, tokiaren ondare erakargarritasuna indartzeko eta herritarren gozamena sustatzeko. Izan ere, Arriaundiko gailurrean ikusgarriena den eta eragin antropiko handiena izan duen ondarea dira. Urtero, modu apal baina jarraituan, hormen hondarrak finkatu dira, bolumenak eta neurriak mantenduz, karezko morteroz sendotuz eta harlanduzko edo harlangaitz-hormazko piezak leku jakin batzuetan lehengoratuz. Horrela, kontserbazioa bermatzen da, “hondakin” edo aztarnategi arkeologikoaren paisaiari eutsiz.





Iparraldeko alboko nabea, betetzen zuen harri-koskor metakina eskuz induskatu aurretik eta ondoren. 2011. J. Agirre.



Erdi Aroko monasterioaren burualdea airetik ikusita. 2011. Aereoclik.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Iparraldeko alboko nabearen absidearen burualdea, haitzaren azaleratze geologikoa azaltzen da. Ignacio Erviti, Jon Erice, Xabi Erviti, Endika Etxeberria eta Peio Esain. 2011. J. Agirre.



Monasterioaren abside nagusiaren eta aldarearen barrualdea. 2018. I. Erviti.



5

TESTUINGURU HISTORIKOA ETA KULTURALA



5.1. BASKONIAKO TESTUINGURU OROKORRA ARO ALDAKETA INGURUAN

Iruñeko arroaren eta Sakanako korridorearen arteko lurraldean erromatarren lehen presentzia Sertoriar Gerren testuinguruan hasi zen (K.a. 82-72). Hala ere, K.o. I. mendearen hasierara arte itxaron beharko da argitalpen honetan jorratzen den lurraldearen antolaketa hasteko, osatzen ari zen inperioaren beharren arabera antolatzen hasi baitzen, Augustoren erregealditik aurrera (K.a. 27-K.o. 14), hain zuzen. Testuinguru horretan eraiki zen azpiegitura garrantzitsuenetako bat erromatar munduko hiri nagusiak komunikatzen zituen bide-sarea izan zen. Galtzada horietako batzuek baskoien lurraldea mutur batetik bestera zeharkatu zuten, erromatar garai osoan paisaia hori artikulatu zuten ardatz nagusienetan bihurtuz. Horien adibide izango ziren *Tarraco-Oiasso* (gaur egungo Tarragona-Irun) edo *Asturica-Burdigala* (egungo Astorga-Bordeaux), *iter* XXXIV ere deitua eta Antonino Ibilbidean jasoa, lotuko zituzten bideak. Gainera, bere ibilbidean zehar, bide-geltokiak ezarri eta hiriak garatu ziren, tokiko komunitateen eta inperioaren arteko elkartruke gune gisa funtzionatu zutenak.

Iturri idatzi greko-latindarrek eta arkeologikoek emandako informazioaren arabera, liburu honetan jorratzen den ingurua antolatu zuen ardatz nagusia, lehen aipatutako *iter* XXXIV izan zen. Baskoien lurraldea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuen galtzada zen, Ibañetako piriniar pasabidea zeharkatzen eta Iruñerria Sakanarekin lotzen zuena (Castiella Rodríguez 2003, 203-208). Ondoren, gaur egun Arabako Lautada deitzen zaionerantz abiatzen zen, iparraldeko goi-lautadarantz. Gaur egun, galtzada horren ibilbide zehatzari eta hari lotutako gune batzuen kokapenari buruzko eztabaida dagoen arren, lurraldeko kokagune batzuk arkeologikoki zehatz-mehatz identifikatu ahal izan dira, esate baterako Zamartze, Uharte-Arakilen, *Aracaeli*[1] *mansio*-arekin identifikatuta izan dena (Armendariz & Mateo 2009; Peréx-Agorreta 2010; Valle de Tarazaga & Bonthorne 2016). Ildo honetan aipagarria da Arriaundiko gailurretik, Sakana, Zamartze eta *Pompelo* kokaguneak zeharkatzen dituen galtzada osoa kontrolatzen dela.



Iter XXXIV izeneko galtzada erromatarraren ibilbidea, Astorga eta Bordeaux lotzen zituena.
Gorriz Arraiaundiko aztarnategiaren kokapena eta urdinez Baskoien lurraldea. 2024. M. Aiestaran.



[1] It. Ant. 455, 3.

5.2. ERROMATAR GARAIA ARRIAUNDIN

Erromatar garaiko aztarnak ez dira oso ugariak igarobide lurralde honetan, baskoien beste eremu batzuekin alderatuta behintzat, eta, beraz, oraindik ez dago informazio gehiegirik bertako biztanleei eta garai hartako jarduera behinei buruz. Hala ere, Arriaundin egindako jarraikako arkeologia-kanpainetan, erromatar kronologiako material arkeologiko batzuk dokumentatu ahal izan dira, baita sedimentu maila fin bat ere, C14 bidez datatzerakoan erromatar garaia adierazi duena. Datazio hori, material zeramiko, beirazko, metaliko eta numismatikoen aztarnekin batera, aldarearen testuinguruarekin lotu behar da, izan ere, horiek guztiek erromatar garaian tontor honen goialdea okupatuta egon zela adierazten baitute. Gainera, ziurrenik lurraldearen eta bidearen kontrolari lotutako funtzioren bat ere izango lukeeela uste da, gunearen kokapen geoestrategikoa kontuan hartuta.

Bestalde, Erdi Aroko monasterioaren barruan induskatutako eremuetan, bat dator goiko geruzen sekuentzia estratigrafikoa: gainazalaren azpian (UE 101), batez ere monasterioaren hormen, eraikuntza-egituren aurriez eta harri-koskorrez osatutako mailak agertzen dira (UE 102). Jarraian, beste maila bat identifikatzen da garai bateko estalkien erorketaren ondoriozko material askorekin, hala nola teila zein iltze aztarna askorekin (UE 103). Kotan behera eginez, lurzoru eta prestaketa maila ezberdinetan Erdi Aroko eta Aro Berriko material arkeologikoak dokumentatu dira, adibidez: zeramika zatiak, iltzeak, txanponak, faunaren hondarrak, etab. (UE 104). Prestaketa edo lurzoru horien funtzioa lurrari horizontaltasuna ematea da, izan ere, haitzaren aldaparen ondorioz, geruza geologikoak gehiago azaleratzen dira ekialderantz egin ahala, iparralderantz beheruntza egiten duten bitartean. Maila horien azpian kolore beltzeko lohi geruza bat dago, eta potentzia handiagoa du substratu geologikoa iparralderantz jaisten den heinean.

Testuinguru estratigrafiko horretan, iparraldeko alboko nabearen barruan, sedimentu-potentzia handieneko muturrean eta beheko kotetan, betekin txiki bat dokumentatu zen, erromatar garaiko material metaliko eta zeramiko gutxi batzuekin (UE 105). Unitate estratigrafiko horren sedimentua lohi beltzez eta ikatz zati txikiz osatuta zegoen. Ikatz-lagin bat (Ua-49013) Uppsala Unibertsitatera (Suedia) bidali zen C14 bidez datatzera eta 1976 ± 30 BP (kalibratu gabe) emaitza eman zuen. Horri esker, kronologia kalibratu ondoren, ikatza % 95,4ko probabilitatearekin, K.a. 41 eta K.o. 121 artean kokatu du.



Iparraldeko alboko nabearen barruan jasotako lagin batetik lortutako datazioaren grafikoa.
2014. Uppsala Universitet.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



1



2



3



4



5



6

Indusketa-prozesuaren seriazioa iparraldeko alboko nabearen barruan, ipar-mendebaldeko muturrean erromatar kronologiako betekina dokumentatu zen. Erdi Aroko zorua (5) altxatu ondoren, zundaketa txiki bat egin zen (1-2-3-4- irudiak), non erromatar garaiko maila iluna erregistratzen den, haitzaren azaleratze geologikoaren gainean (6). Azkenik, azaleratze geologikoa ikusten da, inolako presentzia antropikorik gabe.
2014 J. Agirre.

Erromatar garaiko material arkeologikoak urriak izan arren, zeramika ekoizpenek errealitate anitza erakusten dute. Esate baterako, *Terra Sigillata* (Fernández Ochoa et al. 2015) erregistratzen da, inperio osoan zehar hedatutako zeramika mota, baina, baita Zeramika Arrunt Tarrakonense Akitaniarra ere, Bizkaiko Golkoan eta Pirinioen mendebaldean dokumentatutako tokiko ekoizpena, hain zuzen (Esteban Delgado et al. 2012, 9-11; Aguarod 2017, 44-50).



Erromatar garaiko ontzi mota desberdinei dagozkien zeramika zatiak, UE 105ean dokumentatuak. 2024. O. Mendizabal.

Material metalikoa, nagusiki, *clavi caligarii* ale batzuk osatzen dute, *caligae* edo sandalietan erabiltzen ziren burdinazko tatxet txikiak dira, erromatar jantzi eta oinetakoetan ohikoak. Era berean, aztarnategian burdinazko eraztun bat ere aurkitu da, entalle edo apaingarria kontserbatu ez duena.



Arriaundiko sandalia tatxet edo *clavus caligarius* alea. 2024. O. Mendizabal.



Adibide gisa, Irungo Oiasso hirian aurkitutako tatxetak dituzten zolak irudikatzen dira. (Urteaga & Alkain 2019, 268).

Aurkitutako aztarna numismatikoen arabera, Arriaundiko erromatarren okupazioa ez zen noizean behingo gertakaria izan, goi-inperioan hasita, ziurrenik, Antzinate Berantiarrera arte jarraipena izan zuela dirudielako. Erromatar garaiko 11 txanpon erregistratu ziren, K.o. II. eta IV. mendeen arteko tarte kronologikoa hartzen zutenak. Identifikatutako txanponik zaharrenaren artean, Hadrianok igorritako bi sestertzio daude (K.o. 117-138). Berrienak, berriz, bi *follis* dira, bata Konstantzio II.aren (K.o. 350-351), eta bestea Konstantino I.aren (K.o. 330-337) agintaldietakoak, hurrenez hurren.

Hori horrela, aztarnategi honetan orain arte dokumentatutako txanpon multzoa *iter* XXXIV edo *Asturica-Burdigala* galtzada erromatarraren inguruko txanpon zirkulazioko joera orokorrari dagokio. Alde batetik, Hadrianoren txanponak galtzada horren loraldian kokatu daitezke, bere erregealdian lortutako merkataritza-jardueren gorakadari lotuta; izan ere, jarduera horiek bultzada handia izan zuten Ebroko haranaren mendebaldeko eremu osoan, batez ere zonalde horretako zeramika ekoizpenen arrakastari lotuta (Cepeda Ocampo 1997, 269; Arias Ferrer 2008, 767-769). Bestetik, K.o. III. mendearen erdialdetik eta K.o. IV.aren lehen erditik aurrera datatutako txanponak Hispaniako moneta-zirkulazioaren beste aldi garrantzitsu bati dagozkio (San Vicente 1999, 710-715), eta Arriaundiren kasuan, zentzu estrategiko eta militar bikoitzari lotuta egon liteke, Pirinioetako mendebaldeko beste gune batzuetan gertatzen den bezala (Mendizabal-Sandonís 2023, 357). Arlo honekin amaitzeko, tamalgarria da aztarnategia legez kanpoko detektagailuekin espoliatu izana, eta gai hauetan ardura duten agintariak gertakari hauen inguruan ohartaraziak izan dira. Horregatik, aztarnategian babes-seinaleak jarri dira eta jardunbide txar horien debekua azpimarratu da.

Erromatar garaiko multzo numismatikoa Arriaundiko aztarnategian			
Igorlea	**Kronologia**	**Txanponaren balioa**	**Txanpon kopurua**
Hadriano	117-138	Sestertzioa	2
Galieno	253-268	Centenionalis	1
Klaudio Gotiko	268-270	Antoniniano	1
Zehaztugabea	III d.C.	Follis, Antoniniano	3
Zehaztugabea	I-V d.C.	Zehaztugabea	2
Konstantino I	330-337	Follis	1
Konstantzio II	350-351	Follis	1

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Galieno erromatar enperadorearen txanpona. 2024. M. Legorburu.



Erdi Aroko monasterioaren alboko nabearen barruan aurkitutako erromatar garaiko burdinazko eraztuna. 2024. O. Mendizabal.



6

LARUNBEKO ALDAREA



6.1. ERREGISTRO ARKEOLOGIKOA

Erromatar garaiko harrizko aldarea, XI. mendeko Erdi Aroko monastegiaren fabrikari atxikita dagoen eta ataria bezala izendatu den, oinplano angeluzuzeneko eraikin baten aztarnen barruan zegoen putzu batean aurkitu zen. Eraikin horren barruko espazioak 12 m luze eta 5 m zabal zituen (60 m^2) eta eremu osoa induskatu zen goiko unitate estratigrafikoak altxatuz, Erdi Aroko monasterioko nabeen barruan dokumentatutakoen antzeko ezaugarriak zituztenak: hau da, lehenengo geruza mendiko larreetako landare-estalkiari eta lur organikoari dagokio (UE 401) eta bigarrena berriz, harri-koskorrez, lurrez eta harlangaitzezko bloke solteez (UE 402) osatua dago, abandonu eta erorketa-faseari dagokiona.

2020 eta 2021 urteetan egindako lehen indusketa-prozesu horretan, argi eta garbi mugatu ziren atariaren perimetro-hormak eta karezko morteroz finkatu ziren gailurrak; izan ere, 942 m-ko mendi-tontor batean higadura-agenteen eragina handia da, eta horregatik, garrantzitsua izan da aurkitutako eraikuntza-egiturak urtero indartzea. Eraikinaren barruan, mendebaldeko mutur-rean, harlangaitz-horma bat aurkitu zen (UE 409), lodiera eta eraikuntza kalitate txikiagokoa, perimetroko hormei atxikita zegoena eta iparraldetik hegoalderako noranzkoan gela bereizi bat sortzen zuena. Harri-koskor eta harlangaitz-hormaz osatutako deposituaren azpian, zolata edo nibelazio-maila horizontal bat (UE 403) dokumentatu zen, zeramika zati beiraztatu eta XVI-XVII. mendeetako txanponekin.

2022ko kanpainako arkeologia-estrategiaren ardatza, atariaren barruan dokumentatutako gelaren ikerketa izan zen, perimetroko hormek eta barruko horma banatzaileak mugatzen duten eremuarena. 10 m^2-ko azalera duen espazioa da. Ikerketa-taldea sektore horretan sakontzen hasi zen sekuentzia estratigrafikoa ebaluatzeko eta eraikinaren gainerako lekuetan ez zen induskatzen jarraitu. Lehenik, zolata edo nibelazio-maila altxatu zen eta horren azpian, lurrezko betegarri bat erregistratu zen, harri-koskorrak zituena (UE 410). Betegarri hori gainazal osoan zehar hedatzen zen, perimetroko hormei atxikita zegoen eta zolata edo nibelazio-maila horren oinarria sortzen zuen. Hori guztia lurzorua berdintzeko helburuarekin egina izan zen, eraikina lurraren maldaren gainean eraikita baitzegoen.

Nibelazio-betegarriaren azpian errealitate estratigrafikoa oso desberdina zen, gainazal irregularrarekin, aldaketa antropikoekin eta kare zuriaren pilaketa handiarekin (UE 412) eta harri-koskorrak eta harlangaitz-horma bloke isolatu batzuk ere ageri ziren. Horien azpian, substratu geologikoaren degradazio naturalarekin (UE 416) bat datozen kareharri tupatsu zatikatuak daude.

Testuinguru horretan aurkitzen da putzuaren ahoa (UE 413), guztiz biribilean jarritako harlangaitz-hormaz egina. Maila horretan bertan, ahoaren erdian, tupa-kareharrizko bloke zapal handi bat agertu zen. Altxatu ondoren, putzua betetzen zuen betelana hustu zen (UE 414). Betelana lur askez osatuta zegoen, eta inklusio gisara kisua, harri-koskor batzuk, ikatz-zatiak eta fauna-hezur zatiak eta Erdi Aroko kronologiako zeramika zati gutxi batzuk zituen. 77 cm-ko sakoneran, Larunbeko aldarea aurkitu zen, modu horizontalean jarria, aurpegia idatzita eta putzuaren hondora begira zuela. Aldarea, lohi ilunez osatutako depositu baten gainean zegoen, ikatz ugarirekin (UE 420). Pieza osorik atera zen, indusketa prozesuan inolako eraginik izan gabe.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Aztarnategiaren oinplano orokorra eta gorriz ataria deituriko eraikina. 2024 E. Alonso.

Putzuaren barruko deposituetatik lur-laginak jaso dira analitikak egiteko. Gainera, bi lagin organiko (bata egur-ikatzarena eta bestea fauna-hezur batena) (UE 414) Uppsalako Unibertsitatean datatu dira. Lehen laginak, Ua-76081 izenekoak, 948 ± 29 (kalibratu gabe) eta kalibratua K.o. 1040-1153 datazioa eman zuen, % 95,4ko probabilitatearekin; eta bigarrenak, Ua-76080 izenekoak, 921 ± 29 (kalibratu gabe) eta kalibratua K.o. 1036-1207 urte-tartea, hau ere % 95,4ko probabilitatearekin.



Erdi Aroko monasterioaren eremuko oinplanoa eta airetiko argazkia; gorriz, Larunbeko aldarea aurkitua izan den putzua bereizten da. 2024 E. Alonso.





Jatorrizko zoruetara iritsi aurretik dagoen atariaren ikuspegia. 2018. I. Erviti.



Atariko 401 sektorearen barruko indusketa. 2020. I. Erviti.



Aro Modernoko zola, oraindik ez da putzua azaleratu. 2021. I. Erviti.



403 sektoreko azken nibelazio-zorua edo zolata, putzua ikusten da. 2022. I. Erviti.



Atariko eraikinaren barruan dagoen 403 sektorean induskatzen, hurrengo urtean putzua agertuko den lekuan bertan. 2021. J. Agirre.



403 sektorea Atariaren barrualdean. 2021. J. Agirre.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



403 sektorearen azken zolata edo nibelazio-maila. 2021. I. Erviti.





Larunbeko aldarearen aurkikuntzaren aurreko uneetako argazkiak. 2022. J. Agirre.

Larunbeko aldarearen aurkikuntza 2022ko abuztuaren 27an (larunbata) egin zen, egun horretan bertan aurkitu baitzuten putzuaren indusketan. Patxi Gorostieta, bere ertzetik arretaz behatzen ari zela, Peio Esainek garbitu berri zuen harri baten moldurez ohartu zen, bere barruko sedimentua induskatzen zuen bitartean. Hori guztia indusketaren zuzendaria den Juantxo Agirreren aurrean gertatu zen. Izan ere, zuzendaria berehala ohartu zen erromatar garaiko aldarea zela eta auzolangile guztiei deitu ondoren, pieza atera talde osoaren aurrera zuten, Larunbeko 35 auzolangileek momentuaz gozatzeko aukera izan zezaten.

Hala ere, altxatu eta buelta eman ziotenean, latindar alfabetoan idatzitako testu bat zuela ikusi zuten. Indusketa, argazkien eta ikus-entzunezko grabazioaren bidez dokumentatu zen eta aurkikuntzaren berri eman zitzaion Nafarroako Gobernuko Arkeologia Sailari. Arratsaldean bertan eraman zen pieza biltegi ofizialera, bertan behar bezala zaindu zezaten.

Aldarearen kokalekuaren interpretazioari dagokionez, garbi dago bigarren mailako posizio batean topatua izan dela, ez dela jatorrian izanen zuen posizio originala, eta beraz, erromatar garaian izango zuen erabilera lekutik aldendua dagoena. Hau da, ez da agertu erabili izan zen jatorrizko lekuan, botozko aldare gisa.



Aldarea aurkitu zen posizioa, atzealdea goruntz duela.
Idatzitako zatia putzuaren hondora begira zegoen. 2022. J. Agirre.



Peio Esain putzu barruan Larunbeko aldarearekin.
2022. J. Agirre.



Patxi Gorostietak eta Peio Esainek aldarea atera zuteneko prozesuaren argazkiak, Iosu Erviti unea grabatzen. 2022. J. Agirre.



LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



José Goikoa eta José Ignacio Martiarena 403 sektorean, Larunbeko aldarea atera ondoren. 2022. J. Agirre.





Harlangaitz-horma putzuaren barrualdean. 2022. J. Agirre.

LARRAHEREN PUTZUA

Oinplano zirkularrekoa da, lurrean sartuta dago eta kareharrizko harlangaitz-hormaz egina izan zen. Bere harrien artean kalitate baxuko kare eta lur morteroa gordetzen du. Putzuaren hondoa haitzaren azaleratze geologikoan bertan induskatuta dago.

Bere neurriak honako hauek dira: 1 m-ko diametroa eta 1 m-ko sakonera. Goiko ilararen zati bat, mendebaldeko ahoari dagokiona, ez da kontserbatu.



Putzuaren hondoa, aldarearen kokapena eta kota markatuta, haren euskarri zen sedimentua ikusten da. 2022. J. Agirre.



403 sektorea indusketa amaitu ondoren. 2022. J. Agirre.



Sedimentua atera ondorengo putzuaren barnealdea eta hondoa. 2022. J. Agirre.



Monasterioaren oinplanoa, ebaketa estratigrafikoaren orientazioarekin.
2022. J.Agirre, M.Aiestaran.



Larraheren putzuaren Harrisen diagrama.
2022. J.Agirre, M.Aiestaran.



Larraheko putzuaren ebaketa estratigrafikoa, induskatu aurretik (goian) eta ondoren (behean). 2022. J.Agirre, M.Aiestaran.



6.2. LARUNBEKO ALDAREAREN EZAUGARRIAK

Larunbeko aldarea erromatar garaiko harrizko aldare bat da, kalkarenitazko bloke monolitiko batean egina. Bere neurriak ertainak dira eta egungo kontserbazio egoeran, 47 x 18 x 18 cm-ko neurriak ditu.

Goiko aldean gailur bat du, *focus* biribil batez errematatua, erritualak egiteko erabiltzen zena. Gailurra eta oinarria erdialdetik moldura sinple banaren bidez banatuta daude.

Erdiko gorputzak 15,5 x 16 cm-ko neurriak ditu, hau da, ia karratu perfektua da, eta, zalantzarik gabe, piezaren egikera kanoniko baten emaitza da.



Larunbeko aldarearen eskaner-modeloa, alboetako neurriak milimetrotan jarrita. 2024 E. Alonso.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Larunbeko aldarearen eskaner-modeloa, neurriak milimetrotan jarrita. 2024 E. Alonso.



Larunbeko aldarearen atzealdeko aurpegia. 2022. J. Egaña.



Larunbeko aldarearen aurrealdeko aurpegia. 2022. J. Egaña.



Larunbeko aldarearen ezkerreko aldea. 2022. J. Egaña.



Larunbeko aldarearen eskuineko aldea. 2022. J. Egaña.



Larunbeko aldarearen beheko aldea. 📷 2022. J. Egaña.



Focus-a Larunbeko aldarearen goiko aldean. 📷 2022. J. Egaña.

6.3. LEHENGAIA ETA KARAKTERIZAZIO PETROLOGIKOA

Arriaundi inguruko erliebea, gutxi gorabehera, E-M norabideko tolesdura leun batzuek markatzen dute, inguruko haranak eta muinoak mugatzen dituztenak. Ekialdean, Zuasti errekastoak I-H norabideko paisaia zeharkatzen du, Aiztondo eta Urrutxaga aldetik jaiotzen den kono kolubiala (Kuaternario) moztuz.

Arriaundi higadurak zizelkatutako muino edo hondar-erliebe bat da. Kareharri konpetenteen mailak (260) zintzilikatutako sinklinal leun bat marrazten du, eta tuparrien gainean nabarmentzen da (254) (Faci Paricio eta Galán Pérez, 1995). Kareharriaren maila, batez ere, hondar tamainako itsasoko kare-organismoen zatiek osatzen dute (Sollaondiren kalkarenitak). Litologia horiek era tertziariokoak dira, Luteciense (47,8-41,2 Ma), eta malda txikiko itsas ezponda batean metatu ziren (tuparri metakina), non sakonera txikiko itsas plataformatik (Payros, 1997) ekarpen turbiditikoak (kalkarenita metakinak) iristen diren.

Botozko eremuko karakterizazio petrologikoa esku-lupak eta PIC Peak 2001 (25x) motako mikroskopioa erabiliz egin da. Azaleko irudi digitalak hartzeko, Dino Lite Dino-Lite AM-7013MZT mikroskopio digitala erabili da.

Larunbeko aldarea ale ertain/lodiko kalkarenita bat da, bioklasto ugari (Bc) eta kuartzo ale biribilduak (Qtz) dituena (3. irudia). Testura granulotsua da, matrize mikritiko zurixkarekin. Bioklastoen artean, honako hauek bereizten dira: makroforaminifero bentonikoak (MF) (albeolinak eta/edo nummuliteak, ziurrenik), briozooak (BZ), alga gorriak (3g irudia) eta ekinodermoen balizko aztarnak (EQ), besteak beste.

Organismo horiek sakonera gutxiko itsas ingurune sedimentario bat adierazten dute (plataforma fotikoa). Hala ere, bioklastoen hausturak eta aleen ukipenak nolabaiteko energia duen giro traktiboa adierazten dute, eta beraz, ezpondaren eremu sakonagoetara garraiatuta egon daitezke.

Aldarearen harkaitzaren jatorriari dagokionez, esan beharra dago haren ezaugarri geologikoak bat datozela Arriaundin (Sollaondoko kalkarenitak) azaleratzen diren kareharrien deskribapenarekin.



2014. I. Erviti.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



260	Calcarenitas masivas con nummulites (Luteciense)	218	Flysch detrítico (Cuisiniense)
254	Margas (Luteciense)	207	Caliza y calizas con margas (Daniense)
239	Margocalizas y margas (Luteciense- Biarritziense)	199	Caliza y margocalizas (Maastrichtiense)
237	Calcarenitas y margas (Luteciense)	536	Gravas, arenas y limos (Cuaternario)

Mapa Geologikoa (Nafarroako Geologia bisoretik aldatuta: https://geologia.navarra.es).



Gainazaleko alterazioek gutxi eragindako piezaren sekzioetan ikusten diren fosilen mikro-argazki petrografikoak. 2022. J. Egaña.

ALDAREAREN KARAKTERIZAZIOA

Piezaren xehetasunezko karakterizazioan, bi behaketa mota egin ziren: batetik, gainazalaren ezaugarriak, harria zizelkatu ondoren izandako aldaketaren ondorioz sortuak; eta, bestetik, harriaren izaera definitzen duten berezko ezaugarriak. Piezaren gainazalean hainbat aldaketa mota daude, jarraian deskribatzen direnak:

A) **Aire zabaleko esposizioagatik gainazala zuritzea**: Mineralen meteorizazio kimikoak elementu kromatikoak desagertzera bultzatzen du. Lehenengo 5 mm-tan gutxi gorabehera eragiten du. Bioalterazioek aldatu gabeko gainazalean ikusten da (kraterren artean) (2 eta 5 irudiak).

B) **Bioalterazioak**: Piezaren lau alde handienetatik hirutan, higadura markak daude, material galerarekin. 0,1 eta 0,2 mm arteko diametroko mikro-krater esferaerdiko forma dute. Ehundakako multzotan antolatzen dira. Aldaketarik gabeko morfologiak eta haren antolamenduak iradokitzen dute azaleko degradazio hori kareharrien gainean hazten diren organismo endolitikoek (onddoak, likenak) eragin zezaketela. Antzeko adibideak deskribatu dira Cares Arroilan (León) (Terrón Alfonso, 2016). Organismo horien jarduerak zulo txikiak sortzen ditu, arrokari finkatzen zaizkionean. Gaur egun ez dago hondakin organikorik, baina begi hutsez ikus daiteke zer eragin duen harrizko materialean. Hutsik daude edo lehen deskribatutako sedimentuarekin beteak (2, 3, 4, 5 eta 7 irudiak).

C) **Kaltzio karbonatoaren inkrustazioak**: Azalera partzialki estaltzen duten eta substratuari ondo itsatsita dauden kaltzio karbonatoaren metakinak. Uretan disolbatutako substantzietatik abiatuz prezipitatutako zarakar edo kostra minerala. Garrantzi txikia dute (1-2 mm inguru) eta kolore zurixkakoak dira, erliebe positiboarekin (6. irudia).

D) **Material exogenozko gainazaleko metakinak**: Tonu okre eta grisaxkako sedimentua, ehundura buztintsua duena (1a irudia). Zizelkatutako prisma angeluzuzenaren goiko aldean, metakin horiek ikatzari legokiokeen material beltz distiratsuko zati milimetrikoekin nahastuta daude (1b irudia). Zenbait sektoretan, halaber, tonu beltz eta distiratsua duten hondakinak daude, ziurrenik karbonodun materia organikoarenak (9. irudia).

Ondorio gisa, esan daiteke aldareak kareharrizko elementu bereizgarriak dituela, gainazaleko higadura-agenteen eraginpean egon direnak, eta beste batzuk, oro har ingurune urtsuetan edo urez gainezka dauden inguruneetan sortutako afekzioei dagozkienak.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Larunbeko aldarean ikusitako gainazaleko alterazioen eskema. 2024. A. Aranburu, L. Damas.

6.4. TESTU EPIGRAFIKOA

Testua aldarearen erdiko gorputzean grabatu da lau idazketa lerroren bidez, baina bosgarren lerro bat, botozko formularen zati bat duena, gorputza oinarritik bereizten duen molduraren gainean idatzi da. Arkeologiak aurkitu baino lehen, piezak kolpeak jasan ditu, goiko partearen hainbat zatitan eta oinarriaren behealdean batik bat, baina soilik beheko molduran grabatutako hizkiak kaltetu dira, eta, beraz, irakurketa apur bat zailtzen da.

Jarraibide-lerroen markak hautematen dira, testua behar bezala zenbakitzeko eginak. Hizkiek modulu nahiko homogeneoa erakusten dute, 3 cm ingurukoa. 1, 3, 4 eta 5 lerroetan interpuntzio zirkularrak grabatu dira hitzak bereizteko.

Paleografiaren ikuspuntutik, testua letra larriz idatzita dago. Azpimarratzekoa da E hizkia, bi barrakoa ll. 3 eta 4, eta M hizkiaren marra irekiak, l. 3, agian K.o. I. mendeko azken garai bati dagokiona.

Testuaren irakurketa ondorengoa da:

Val(eria) · V[i]-
tel·la
m(erito) · La·r-
a·he · vo(tum)
l(ibens) · s(olvit)

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Javier Velaza, Joaquín Gorrochategui eta Juantxo Agirre Larunbeko aldarearen inskripzioa aztertzen Nafarroako Gobernuaren arkeologia biltegian. 2022. J. Egaña.

Larunbeko aldareak ***Val(eria) Vitella*** izeneko emakume batek ***Larahe*** izeneko jainko-jainkosa bati jarritako boto baten betetzea adierazten du. Eskaintzailea erromatarren egitura onomastiko klasikoaren bidez aipatzen da, izen gentilizio – *nomen* – eta izen pertsonal – *cognomen* – banaz osatua. Kasu honetan, gentilizio izena **Valeria** da, oso ugaria lurraldeko latinezko inskripzioetan, adibide hauekin: Valerio (edo Valeria) Belteson (Oiartzun, EE VIII, 1897, 78-79), Lucio Valerio Firmo (Oteiza, II 2969), Valerio Lupiano (Iruñea, AE 2008, 704), Valerio Severino (Iruñea, AE 2008, 705); Valerio Badan (?) (Izkue, AE 1998, 776), Valerio Tyrmo eta Valeria Eraste (Eslaba, HEp 8, 1998, 373), besteak beste. Bestalde, oso ohikoa da *nomen*-a laburtuta agertzea, eta hain zuzen ere, VAL forma da gentilizio hori agertzeko ohiko modua.

Vitellus / Vitella *cognomen*-a ez da hain ohikoa. Puiun aurkitutako hileta-inskripzio batean (HEp 9, 1999, 439), abizen hau duen pertsona bat ezagutzen dugu (nahiz eta piezaren mozketak haren izena ezagutzea eragozten duen). Gure lurraldetik kanpo, Cádizko (Quinto Pompeyo Vitelo: IRPCadiz 363), Erromako (CIL VI 35265; 39488 p 4071; ICVR VI, 16565), Faleroneko (CIL IX 5498) eta Narbonako (CIL XII 4781 eta 5185) inskripzioetan ere agertzen da. Bistan denez, semantikoki animalien munduarekin lotutako *kognomina* bat da (ikus Kajanto 1982, 86. eta 329. or.), zehazki, *vitulus* "txahal" hitzaren txikigarri bat, hizkuntza erromanikoetan argi antzematen dena, hala nola *vitella* italieraz, *vedella* katalanez edo *veau* frantsesez, antzinako frantses *vedel*-etik eratorrita. Testigantzen sakabanaketak ez du ondorio gehiagorik ateratzea ahalbidetzen, baina agian ez da baztertu behar kasu honetan *Deckname* bat izatea, hau da, indigenen jatorrizko izen baten itzulpenaren emaitza.

Aldarea eskaintzen zaion jainko-jainkosaren izenak 3. eta 4. lerroen zati bat hartzen du: *Larahe*. Teonimo hau, Arga ibaiaren arroan eta Gesalatz ibaiaren ibaiadarrean dauden baskoien lurraldean kokatutako beste hiru aldaretan bakarrik aurkitu da: Muruzabal Andionen (Mendigorria, antzinako *Andelo*), Iruxon eta Errezun. Zorionez, jainko-jainkosa izena ongi kontserbatu da testigantza guztietan, eta aldaera grafikoak ikusteko aukera ematen digu. Aldaera bat izenaren dardarkariaren adierazpen bakun edo bikia da: *Larahi* (Errezu) edo *Larahe* (Larunbe), R bakarrarekin, *Larrahi* (Muruzabal Andion), aldiz, bi RR dituela. Bigarren aldaera izenaren azken bokalean agertzen da: *-he* bai Iruxon eta bai hemen Larunben, *-hi* Errezun. Muruzabalen testigantza ez da erabakigarria, irakurketa -hi itxuraz gertagarriena izan daitekeen arren, ez da baztertu behar, harriaren ertzeko materialaren higadura dela eta, *-he* izatea.

Bokalen arteko hizki baten adierazpen bikoitzak, kontsonante geminatu bat adierazten zuen latinez. Kontsonante hori artikulazio bera errepikatzean zetzan, bai silaba baten amaieran, bai hurrengoaren hasieran. Ez zen gauza bera *annus* "urtea" (an.nus ahoskatua) eta *anus* "uzkia" (a.nus ahoskatua), ezta *carrus* (kar.rus) "gurdia" edo *carus* (ka.rus) "maitea" ere. Jainko-jainkosa baskoiaren izenean zegoen dardara kontsonante bikia edo bikoitza balitz, latinak bere hizkuntzan zituenak erabiliz, ez genukeen aldaketa grafikorik izango, izena beti -RR- batekin grafiatua izango zelako. Beraz, idazketako aldaketek eta zalantzek adierazten digute ez zela kontsonante geminatu bat, baina ezin zela besterik gabe -R- latindar sinplearekin parekatu. Akitaniako teonimoen errepertorioan antzeko zalantzak aurkitzen ditugu, adibidez, *Baigorrixo* (CIL 13, 323, Cier-de-Luchon) edo *Baigorixo* (CIL 13, 92, Huos), *Erriape* edo *Eriape*, biak Saint-Béateko harrobietatik etorriak. Aitzineuskararen sistema fonologikoaren berreraikitze estandarra kontuan hartuta, non artikulazio arineko sonante eta dardarkarien eta artikulazio gogorreko baina beti tautosilabikoko beste batzuen arteko aurkakotasuna egongo litzatekeen, pentsa daiteke RR / Rren arteko zalantza grafikoa artikulazio indartsuko dardarkari ez-bikia adierazten saiatzen ari dela, historikoki euskaldunaren dardarkari anizkun gisa agertzen dena (bere ahoskeran espainiar *perro* ahoskera anizkoitzaren berdina, *pero* sinplearen aldean).

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

VAL(eria) · **V**[i]-
TEL · **LA**
M(erito?) · **LA·R**-
A·HE · **VO**(tum)

L(ibens) · **S**(olvit)





Latinezko testua ulertzeko garrantzizko informazio morfologikoa hitzen amaieretan biltzen da, bai eta hitz egindako edo desagertutako munduko hizkuntza askotan ere; desinentziak esaten zaie, eta horien aldaketetan hitz baten paradigma osatzen dute. Honelako testu sinple batean, non eskaintzaile bat dagoen (*Valeria Vitella*) eta jainkotasuna, egindako promesa jasotzen duena, azken hau datibo bezala adierazten da. Hala, Jupiterri eskainitako Nafarroako aldareetan, datiboaren kasuan, *Iovi* teonimoaren adierazpen kanonikoa ikus dezakegu, eta, ondoren, haren atributu ohikoenak, *Optimo* eta *Maximo* (Gesalatz, Kaseda, Erriberri eta Eslabako Santakrizeko aldareak), Monteagudoren Marteko aldarea *Marti Invicto* den bezala, eta *Andelo*-ren brontzezko taula Apolorentzat, *Apollini*. Beren izenen datibo forma zuzenak dira: *Iuppiter, Mars* eta *Apollo*.

Teonimo bat, normalean femeninoa, -a -n amaitzen dena, Minerva edo Diana bezala, -ae: *Minervae, Dianae*-n datiboa izango du, kasu gutxi batzuetan *Minerve* edo *Diane* bezala idatziak ager daitezkeenak, diptongoaren eboluzio arrunt bat adieraziz. Jainko-jainkosak pluralak izan daitezke, ninfak edo lareak bezala, eta espero diren desinentziak pluralaren datiboarenak dira: *Nymphis*, Laribus.

Jainko-Jainkosen izen indigenak latinezko datibo desinentzietara egokitu ohi dira, eta hori nahiko erraza da antzeko hizkuntza indoeuropar batetik abiatzen denean, hala nola galiarra, zeltiberiarra edo lusitaniarra; Belesama jainkosaren eskaintza galiarra, galieraz espero den datibo-formarekin, *Belesami* (βηλησαμι) (Vaison, G-153), latinez *Minervae Belisamae* (CIL 13, 8, Saint-Lizier) bezala egokitzen da. Akitaniako teonimoetan ere ikusten ditugu egokitzapenak, nahiz eta haien oinarriak ezin diren erraz parekatu deklinazio eredu latinoekin. Zorionez, *Leheren* teonimoa (CIL 13, 105 eta 109), izenaren oinarri-forma erakusten duena, batzuetan gai kontsonanteko hitz bat balitz bezala egokitzen da -i: *Leherenni* hitzarekin (CIL 13, 106, 111, etab.), *Marti* edo *Apollini* bezala, beste batzuetan *Leherenno* bezala agertzen den bitartean (CIL 13, 97, 98, etab.), *Merkurio* edo *Silvano*-ren antzera.

-he amaiera, Larahe bezala, ezin da azaldu, hala ere, latinezko desinentziara egokitze gisa; izan ere, *-ae* dira normalean femeninoak izan ohi diren jainkoentzat *-a* amaiera dutenean (lehen latinezko deklinazioa, *Minervae* bezala); *-o* normalean maskulinoak izan ohi diren jainkoentzat, *-o* amaiera dutenean (latinezko bigarren deklinazioa, *Silvano* bezala); eta, azkenik, *-i*, bi generoetako jainkoentzat, hirugarren deklinazioak tolestuak, hala nola *Marti, Iunoni* eta *Apollini*. Agian pentsa liteke *-he* forma lehen deklinabideko izenen *-ae* diptongo klasikoaren latinezko emaitza arrunta dela (hau da, *Larahae* > *Larahe*, *Dianae* > *Diane* bezala), baina Iruxoko aldarearen testigantza azalpen honen aurka doa, testuan teonimoa maskulino gisa zehazten baitzaio: *deo Larahe Felix* 'Félix Larahe jainkoari'. Amaiera, beraz, indigenatzat hartu behar da.

Larunbeko inskripzio honen berezitasun bat da botozko formula ez dela oso ohikoa da,, botoa bete dela adierazten duen formula, alegia.. Gorago adierazi den bezala, botoaren betetze hori formula estereotipatu baten bidez adierazten da, aldaera gutxirekin, eta ohikoena *votum solvit libens merito* izanik, "gogoz bete zuen agindu zuena merezimenduarekin". Batzuetan *merito* ordez animo erabiltzen da, komitentearen borondatea azpimarratuz, edo ñabardura-ren bat nabarmentzen da hitzen hautaketan, *retulit* zorra itzultzean edo *posuit* aldarearen kokapenaren ekintza fisikoan. I.3-aren hasierako M *merito* hitzaren laburdura gisa ulertzen badugu, ikus dezakegu formulan azken postuan egon ohi den hitza teonimoaren aurretik idatzi dela. I. 5, aldarearen oinarrian inskribatuta, larriki hondatuta dago eta, beraz, amaierako *solvit* hitzaren S bakarrik ikus daiteke segurtasunez. Aurreko espazioak, beharbada, *votu(m)* -ren jarraipena eta *libens*-en laburdura jasoko lituzke.





2022. J. Egaña.

6.5. LARRAHE, JAINKO-JAINKOSA BASKOIA

Tokiko jainko-jainkosa indigenen multzoan kokatu behar da Larrahe. Batetik, baskoien lurraldearen eremu mugatu batean bakarrik dokumentatzen baita orain arte behintzat, eta beste jainko baskoi batzuekin batera amankomuneko lurralde bat partekatzen du. Bestetik, ezaugarri fonetiko eta morfologiko koherenteak ditu baskoiera-akitaniarrari buruz dakigunarekin.

Jainkoari buruz orain arte ezagututako lau lekukotzak iparraldetik hegoalderako norabidean egituratutako lurralde-eremu batetik datoz, Arakil ibaiaren ibilgutik eta Arga ibaitik, Larunbe izanik iparralderen dagoen puntua eta Muruzabal Andion hegoalderena dagoena. Gesalatz errekaren ibaiadarretatik zabaltzen da lurraldea, egungo Allotz urtegira iritsi baino lehen, Argarekin bat egiten duen arte Mendigorria parean. 50-55 km inguruko hedadura du, iparraldeko eta hegoaldeko puntuen artean, eta 20 km inguruko zabalera, Errezu, mendebalderen dagoen herria, eta Arga ibaiaren artean. Lurralde horretan bertan, batez ere Gesalatz ibaiaren arroko herrietan kontzentratuta, beste lau jainko indigenari eskainitako aldareak aurkitu dira (*Errensae, Itsacurrinne, Loxae, Urde,* topatutako formak kontuan hartuta). Horiei Barbarinen, apur bat mendebalderago, *Sela(i)tse* jainkoaren hiru aldareak gehitu behar zaizkie, eta Uxuen, Muruzabal Andionetik (*Andelo*) 40 km ekialdera, *Lacubegi* jainkoaren aldarea.

Teonimoaren ezaugarri formalei dagokienez, aurreratu dugu izenaren lekukotza batzuek aurkezten duten R sinple eta RR bikoitzaren arteko aldakuntza grafikoak eremu baskonikoaren barruko interpretazio baten alde egiten dutela. Pisu handiena duen argudioa H letraren bidez adierazitako azpirazioaren presentzia da; izan ere, dakigunez, aspirazioa baskoiera-akitaniarraren fonologiaren ezaugarri bereizgarrienetako bat zen, eta horrek argi eta garbi bereizten zuen gainerako hizkuntza garaikide mugakideetatik. Ez galiarrek iparraldean, ez zeltiberiarrek hego-mendebaldean, ezta iberriarrek ere ekialdean, ez zuten soinu hori erabiltzen beren sistemetan. Izan ere, dagokien signario paleohispanikoetan zeinu espezifikorik ez zutelako eta alfabeto latindar edo grekoaren bidez transmititutako inskripzioetan eta onomastikan H-rekin transkripziorik ez dagoelako. Esan beharra dago latinak berak galdua zuela aspirazioa bere hizkuntzan, nahiz eta H-a geratzen zen aztarna grafiko gisa, egungo gaztelaniarekin gertatzen den moduan. Hau da, espainolez hombre bezala, Inperioaren hasierako latinean ere, homo aspirazio gabe ahoskatzen zen, tradizioz H-z idatzi arren. Baina erromatarrak jakitun ziren H letraren balioaz, eta beste hizkuntza batzuetako hitz haietan, bereziki grekoan, aspirazioa adierazteko erabili zuten, beren idazkietan transkribatu baitzituzten. H letra oso ohikoa da euskal jatorriko pertsona- eta jainko-izenetan, bai hegoaldeko Akitanian topatutakoetan, ikus *Hunnu, Harsi, Hanna, Aher-, Bihox-* etab.; baita baskoien lurraldean ere, esaterako *Umesahar, Narhungesi, Serhuhoris,* etab.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Harrizko epigrafeetan gordetako antroponimoen edo baskoi-akitaniar pertsonen izenen epigrafia banaketaren mapa. Izar beltz batekin, autore klasikoek aipatutako herriguneak adierazten dira.
© 2024. J. Gorrochategui.

Bestalde, Larraheren izenean aspirazioaren presentzia azken silaban dago, eta ziur asko, zati desinentzialaren parte da, Akitaniako beste teonimo batzuen arabera, non *-he* sekuentzia aurkitzen dugun. Bereziki adierazgarriak dira *Artehe* (CIL 13, 64, Saint-Pé-d 'Ardet), *deo Artahe* (CIL 13, 70, Ourde) eta *Herauscorritsehe* (CIL 13, 409, Atharratze) aldaerekin. Lehen teonimoak aldaera sinple bat du, *Arte* (ILTD 36), eta ez dakigu izen sinplearen adierazpena den, desinentzia zabaldu gabe, edo formaren kontrakzioa desinentziarekin, *Lerenno* grafian bezala (CIL 13, 104) *Leherenno* luzeagoagatik. Akitaniako testigantza horiei *-he*, bokalaren atzetik, beste batzuk gehitu dakizkieke, zeinetan itxurazko desinentziak, kontsonantearen atzetik joatean, *-e* forma hartzen duen. Adibide esanguratsuak dira, hala nola *Herculi Toli Andose* (CIL 12, 4316, Narbona), *Buaigorixe* (CIL 13, 124, Arnesp), *Erriape deo* (Saint-Béat) eta *Garre deo* (CIL 60, Ore), ez bakarrik ia guztietan jainkoaren genero maskulinoa adierazten delako, baita aldaerak desinentzia desberdinekin dokumentatzen direlako ere: *Andosso* (CIL 13, 434, Saint-Elix-sur-Baïse), *Erriap(p)o* (ILTG 10, Saint-Béat) eta *Garri* (CIL 49, Gaud). Logikoa dirudi pentsatzeak azken adibide horietan izenak forma flexibo latindarrera egokitu zirela, hitzaren egituraren arabera desinentzia egokienak hartuz; aldiz, lehenengoetan, teonimoarekin batera doan desinentzia indigena islatzen da.

Orain hobeto uler dezakegu aldare baskoietan dokumentatzen dugun *Lar(r)ahe / Lar(r)ahi* aldaera formala: *Larahe* promesaren jainko onuraduna izendatzeko forma indigena den bitartean, Larahi balizko kasu flexibo latindar bati egokitutako forma da.

Esan beharra dago, latinez idatzitako testu batean hizkuntza indigena bati dagozkion formak erabiltzea arraroa dirudien arren, kode linguistikoaren aldaketa hori ez dela hain ezohikoa. Teknikoki *code switching* esaten zaio, eta elebidun perfektuek ohiko elkarrizketetan erabili ohi duten baliabidea da, hizkuntza batean hitz egitean kulturalki beste hizkuntzari (gehiago) dagozkion kontzeptuak aipatzen direnean. Kodea aldatzeko testuinguru zehatzak askotarikoak izan daitezke, baina, zalantzarik gabe, erlijio-sinesmenak eta indigenen hizkuntzarekin estuki lotuta dauden jainkoen eta erakundeen izenak dira eremu egokienak.

Erroari dagokionez, Larunbeko aldareak teonimia hispaniarrean edo galiarran ez du paralelorik. Jainko hispaniarren izenen artean, *Larauco* da antzekotasuna duen bakarra, *Reve* jainkoaren epitetoa, Chavestik (Portugal) etorria, Bracarako *conventus*-ean. Baina bere banaketa eta eraketa, *-ko* atzizki deribazional argi batekin, lusitaniar epitetoetan ohikoa dena, oinarri ez argi baten gainean, teonimo baskoiatik urruntzen du. Badakigu antzinako teonimo bati etimologia bat esleitzea arriskuz beteriko lana dela. Teonimo horren funtzioak eta erlijio-esferaren berezitasunak ez ditugu ezagutzen. Teorian beste eremu batzuetan ezagutzen diren erlijio-funtzioetako bati dagokion eremu semantiko batekin formalki pareka daitezkeen oinarriak baino ezin ditugu proposatu.

Aukera iradokitzaileena *larre, larra* euskarazko 'larrea, belardia' lotzea da, hainbat toponimori bide eman baitie, hala nola *Larrahederra* eta *Larraga*, edo *Larrando* (Zaldua 2022, 140) bezalako abizenei. Erlazio semantiko horren arabera, jainko-jainkosa larreen babeslea izango litzateke, abeltzaintza-azienda hazteko eta mantentzeko lehen mailako baliabide naturala, *Silvanus* jainkoak jatorri latinoko jainkoen artean erabilitakoaren antzeko jarduera-eremua.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Epigrafeetan gordetako antroponimoen edo euskal-akitaniar pertsonen izenen epigrafia banaketaren mapa.
Izar beltz batekin, autore klasikoek aipatutako herriguneak adierazten dira. 2024. J. Gorrochategui.

Lar(r)ahe-ren lekukotza bakar batean ere ez da agertzen haren funtzionalitateari lotuta egon litezkeen irudikapen figuratu edo sinbolikorik. Ez dugu, ezta ere, *Marti Leherenno* edo *Herculi Toli Andose* akitaniar batzuen tankerako eskaintza bikoitz edo sinkretikorik.

Eskaintzaileek emandako zantzuak espektro zabaleko jainko-jainkosa babeslea dela pentsarazten digu, sexu, klase sozial edo lanbide jakin batera mugatzen ez dena, nahiz eta aldare kopuru mugatua izan. Aurkitu diren lau aldareetan, gizonak eta emakumeak, hiritarrak eta esklaboak, berdin dokumentatzen ditugu.

HERRIA	JAINKO-JAINKOSA	ESKAINTZAILEA	SEXOA	EGOERA JURIDIKOA
Muruzabal Andion	Larrahi	Manilius Martialis	G	Hiritarra
Iruxo	Larahe	Felix	G	Esklabo
Errezu	Larahi	A(u)gustina*	E	Esklabo
Larunbe	Larahe	Val(eria) Vitella	E	Hiritarra

* Gorrochategui & Zaldua, prentsan, eskerrak emanez egileei informazioagatik.

Teonimoaren eragin-eremuari dagokionez, jainko-jainkosa indigena baskoien artean, hiruk bakarrik (*Loxae, Selatse* eta *Larahe*) dituzte gutxienez hiru egiaztapen, beren balizko sakabanatze-eremua ikustea ahalbidetzen dutenak.

JAINKO-JAINKOSA	HERRIA	KOORDENATUAK
Lar(r)ahe	Muruzabal Andion	42.59923 / -1.86199
	Iruxo	42.76690 / -1.92678
	Errezu	42.76008 / -1.95018
	Larunbe	42.91088 / -1.75113
Lox(s)ae	Lerate	42.7185 / -1.9358
	Zirauki	42.67616 / -1.89102
	Burumendi (Lerate – Allotz)	42.7060 / -1.9474
	Argiñaritz (Girgillao)	42.74289 / -1.86195
	Anitz (Zirauki)	42.67606 / -1.87695
Sela(i)tse	Barbarin	42.60206 / -2.1077
	Barbarin	42.60206 / -2.1077
	Barbarin	42.60206 / -2.1077



Jainko-jainkosa baskoiak dituzten aldareak aurkitu diren tokien mapa. 2024 . J. Gorrochategui, J. Narbarte.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

Sela(i)tse izenekoaren hiru testigantzak Barbarin herritik datoz, Lizarrako hego-ekialdean, Gesalatz ibaiaren arroan dauden gainerako jainko baskoiek osatzen duten gunetik pixka bat aldenduta, eta bertan dokumentatzen dira *Lox(s)a* -ren bost testigantzak, bereziki Allotz urtegiaren inguruan, Argiñaritzeko testigantzarik bereizienarekin. Bost lekukotzak triangelu hipotetiko baten barruan daude, eta triangelu horren erpinak 10 eta 15 km bitartekoak dira.

Larrahe-ren testigantzek *Loxsa*-ren lurraldea gainditzen dute, bai hegoaldean, Muruzabal Andioneraino iritsiz, Gesalatz ibaia Argarekin elkartzen den tokian, bai iparraldean, Larunben. Eremu osoan santutegi, tenplu edo gurtza-lekuekin identifika daitekeen aztarna arkeologikorik ez dagoenez, ezin da jakin egiaztatutako banaketa epigrafikoa jainkoaren debozio-eremuaren isla den, edo urrunagoko lekukotasunen bat lekualdaketa motaren baten ondorio den. Beharbada, euskarrien azterketa petrologikoek neurri batean erantzun diezaiokete galdera horri. Muruzabal Andioneko lekukotasuna, ustez *Andelo*-ko hirigunean eta haren lurraldean gurtzen zen jainko-jainkosarena izan omen zitekeen.



Larrahe lurraldearen mapa, hurbilketa bat aldareak aurkitu diren tokien bitartez egindako balizko lurraldearen mapa. 2024 . J. Gorrochategui, M. Aiestaran.



7

ERLIJIOA ETA EPIGRAFIA ERROMATAR MUNDUAN



Religio-a, hau da, persona eta jainko-jainkosaren arteko lotura, mundu erromatarraren berezko fenomenoa izan zen. Erroman ez zen inolako ekintza pribatu edo publikorik, erlijio faktorerik gabe: jeneralek orakuluak kontsultatzen zituzten beren estrategia militarra erabaki aurretik; merkatariek eskaintzak agintzen zizkieten jainkoei, haien bidaietan babesa eskuratzeko edo beren negozioei laguntzeko; hiriak beren jainko babesleen esku uzten ziren; utzitako maitaleek izpiritu ilunei eskatzen zieten haien aurkariak ahalik eta modurik lazgarrienean hil zitezen.

Erromako geografia osoa gurtza gunez josita egon zen, hirian pilatzen ziren marmolezko luxuzko tenplu ospetsuenetatik hasita, etxeko larario xumeetaraino, baita beste motatako lekuez ere: sendatze-guneak, labar-santutegiak edota errirual misterialetarako espazioak, adibidez. Erromatar gizarteko bizitzan izaera transbertsalenetakoa zuen arloa zen erlijioarena: gizon-emakumeak; haurrak, helduak eta adinekoak; hiritarrak, erromesak eta atzerritarrak; kontsulak, senatariak, zaldunak, soldaduak, libertoak eta esklaboak. Guztiak izan ziren era batera edo bestera erlijioaren partaide, dela kultu ofizialaren adierazpen arautuetan, dela sarritan magia eta sineskeriarekin muga egiten zuten esperientzia pribatuetan. Gainerakoan, beste ezein zibilizaziok, ez antzinakoek, ezta modernoek ere, ez du erromatarrek adina jainko-jainkosa ezagutu eta asimilatu: toleranteak eta beren inperioan sartzen joan ziren herrien sinesmenekiko jarrera irekia izan baitzuten. Erromatarrek ez zuten zalantzarik izan eta Lazioko beren jainko-jainkosen zerrendari pixkanaka-pixkanaka italiar herrietakoak, greziar panteoi sofistikatukoak, ekialdeko kultu ezberdinetakoak, azken finean, tokian tokiko indigenen jainko ugari gehitu zizkieten. Errealitate horiek guztiek erlijio-panorama oparo bezain konplexua osatzen zuten, eta, zoritxarrez, partzialki bakarrik ezagutzen dugu, gure iturriak ez baitira beti nahi bezain argigarriak.

Erlijioaren eta idazketaren arteko harremana, erromatarren munduan oso estua izan zen honako bi arrazoi hauengatik: batetik, ekintza horietako askok dimentsio publikoa zekartelako, eta, sarritan, propaganda pertsonalaren edo komunitarioaren osagai bat bihurtu zelako, eta horrek, azkenean, haien berri jasotzera bideratutako inskripzioak egiteko beharra sortu zuen; baina, bestetik, idazkera pixkanaka errirualtasun beraren elementu eta muina ere bihurtzen joan zelako. Erritu erlijiosoak, zinez egiaztatzeko, errirualitate hori idatziz jartzea eskatzen zuen. Ildo horretan, erromatarra bezalako erlijio-sistema batean, zeinean pertsona zuzenean komunikatzen baitzen jainko edo jainkosarekin bitartekaririk gabe, idazketa, sakrifizioarekin eta eskaintzarekin batera, funtsezko komunikazio-kanal bihurtu zen bi partaideen artean. Alfabetoari berari, tresna grafikoa izateaz gain, botere magikoak eta apotropaikoak ematen zitzaizkion.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

K.a. II. mendean, adibidez, votum-aren lehen testigantza epigrafikoak aurkitzen ditugu, pertsona erromatarraren eta jainko-jainkosaren arteko harremanean funtsezkoa den kontzeptua. Oso modu sinplifikatuan, erlazio hori *quid pro quo* gisa definituko litzateke: norbaitek promes edo boto bat (*votum*) egiten zion jainko-jainkosa jakin bati, nolabaiteko mesedea eskatuz, eta, jainko-jainkosak bere partea betetzen bazuen, eskaintzaileak hitza betetzen zuen (*votum solvit* o *votum solvit libens merito,* edo antzekoak), hitzartutako eskaintza eginez. Aldaera batzuekin baldin bada ere, harreman mota honek jarraipena izango du errepublika eta inperio garai osoan zehar, ahalik eta kristautasunak bere balio-sistema berria ekartzearekin batera K.o. IV. mendean desagerrarazi zuen arte.



Ibañetako mendatean, Pirinioak zeharkatzen zituen galtzada erromatarraren ertzean kokatutako aldare batean bidaiari batek egindako eskaintzaren errekreazioa. © 2021. J. L. Landa. Gobierno de Navarra. Aranzadi.

Boto-eskaintzek heterogeneotasun izugarria dute.

Lehenik eta behin, botoa eman eta betetzen zuena, pertsonaia indibidual bat izan zitekeen, bere buruaren edo besteren baten izenean zerbait erregutzen zuena, edo baita hirugarren baten aginduz egiten zuena ere, batzuetan enkargua hildako baten testamentuan jasota egon zitekeelako. Gainera, eskaintzaileak *pribatus* gisa jardun zezakeen, hau da, pertsona partikular gisa, baina baita kargu politiko edo erlijiosoaren gisa ere, eta, kasu horietan, zegozkion gastuak diru publikoarekin edo bere ondasunetik ordain zitzakeen. Beste batzuetan, ordea, eskaintzailea kolektibo bat izan zitekeen: elkargo profesional bat, talde militar bat, komunitate zibiko bat (batzuetan magistratuen bidez), hiri bat (edozein kategoria juridikokoa) edo probintzia bat.

Botoa emateko arrazoia ere askotarikoa izan zitekeen. Oso ohikoak dira, adibidez, *pro salute* (norbaiten osasunagatik edo sendatzetagatik), *pro itu et reditu* (joan-etorriko bidaia on batengatik) edo *pro victoria* (enperadore jakin baten garaipenagatik) eginiko eskaintzak. Baina hain ohikoak ez diren beste eskaintza batzuen zerrenda luzea ere aurkitzen da, hala nola *pro domo sua, pro mercibus conservandis, pro libertate, pro felicitate,* etab. Hemen aipa daiteke, halaber, greziar munduaren tipologia espezifiko bat, "aitorpen-hilarriak" deiturikoak, non pertsonaia batek adierazten duen jainko-jainkosari nola egin dion irain, nola zigortu duen eta, azken finean, nola lortu duen barkamena. Beste kasu batzuetan, jasota geratzen da botoa ez dela bete aldez aurreko zin baten ondorioz egin, jainko-jainkosak eskaintzaileari zuzendu dion agindu batengatik baizik *ex iussu*, batzuetan agerpen baten bitartez *ex visu*, edo amets baten bidez *somno monitus*.

Era berean, oso desberdina izan daiteke botozko eskaintza gisa eskaintzen zenaren izaera. Kasurik ikusgarrienetan, badakigu tenpluak, zubiak, iturriak edo bestelako azpiegitura publikoak eraiki direla. Jakina, estatuak ere ohikoak dira, batzuk balio handikoak, baita mota guztietako tenpluetarako hornidurak ere. Kasu horietan guztietan, komeni da nabarmentzea eskaintza, erlijio-funtzio hutsetik harago, eskaintzailearen irudikatze adierazlea izan ohi dela, eta, horrela, bere *pietas* eta eskuzabaltasuna jendaurrean erakusten dituela. Batzutena gainera, idatziz eta xehetasunez adierazten da eskaintzaren zenbatekoa. Baina, askotan, xumeagoa da, eta metalezko xafla txiki batera mugatzen da. Bertan, eskaintzaren xehetasunak idazten dira, edo jainko-jainkosaren esku-hartzearen ondorioz ustez sendatu den gorputz zati baten metalezko edo buztinezko erreprodukzioak egiten dira, edo eskaintzailearen izena duen zeramikazko ontzi txiki bat egin ohi da. Labar-santutegien edo kobazuloen kasuan, badakigu eskaintzak egurrezkoak *xoana-k* izan zitezkeela, baina, zoritxarrez, material horiek, zalantzarik gabe oso ohikoak, ez dira kontserbatu. Testuinguru horietan, ordea, eskaintza, askotan, hormaren edo harkaitzaren gainean soilik izena bera idaztean zetzan, batzuetan bakarrik botoaren aipamenarekin batera, Cogul haitzuloan (Katalunia) erregistratu den bezala. Kasu batzuetan, tokiko magistratuek dute inskripzio horien erituen ardura.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben



Valeriak, Arriaundi mendiaren tontorrean, Larrahe jainko-jainkosa baskoiari eskainitako aldarean egiten duen eskaintzaren errekreazioa. 2024. J. Agirre.

Nolanahi ere, euskarri mota ugariren artean, euskarri batek Errepublikaren garaitik aurrera garrantzi berezia lortu zuen, ia boto-erituaren paradigma bihurtu arte. Aldarea edo oparria da, izaera monumentalekoa, eta goialdean *focus* bat izaten du, hau da, jainko-jainkosaren omenezko eskaintzak erretzeko su txiki bat. Aldare tipologien barruan ere, aniztasun handia dago, bai haren tamainaren ikuspegitik *arulae*-en kasuan, adibidez oso txikiak dirak baina beste batzuetan askoz ere handiagoak izan litezke; baita haren morfologiaren eta dekorazioaren aldetik ere, esaterako kasuan kasuko erritualaren edo jainkotasunaren atributuen irudikapenak barne har ditzakeelako. Dena den, gehienetan, aldareek inskripzio bat dute, eta inskripzio horretan ez dira falta eskaintzailearen eta jainko-jainkosaren izenak nahiz eta azken hori ez den beti aipatzen, izan ere, batzuetan, monumentua jainko bai zuzendutako tenplu edo santutegiaren barruan jarria izan delako, eta, beraz, aipamen hori ez zen beharrezkoa izango.

Erromatarren erlijio-unibertsoaz dugun ezagutza, zuzenean, epigrafiak eskaintzen digun testigantzaren mende dago. Nahiz eta literatura-iturriek, batzuetan, erromatar panteoiko jainkoen berezko gurtzaz eta erritualitateaz hitz egiten diguten, oso urriak dira erromanitatearen lurraldean oso hedatuta dauden beste kultu batzuei buruzko aipamenak, esaterako ekialdeko kultuei buruzkoak; edota tokian tokiko jainko guztiei dagozkienak, azken horiei buruz ia mutu daude. Zorionez, erlijio-izaerako inskripzioak oso ugariak dira, eta askotariko erlijio-tradizioak elkarrekin bizi, gainjarri eta sinkretizatu zirela adierazten dute, egoeraren konplexuna azaleraziz.

Zalantzarik gabe, erromatar jainkoek etengabeko presentzia izan zuten erlijio ofizialean. Erromatarrek inperioaren lurralde guztietara eraman zituzten beren jainkoak, baina, sarritan, konkistetan aurkitu zituzten tokiko jainko eta jainkosak ere beren sinesmenen unibertsoan bereganatu zituzten. Horien artean, batzuek ospe handia lortu zuten, eta oso modu nabarmenean hedatu ziren, hala nola *Isis* eta *Serapisen* kultuak, *Magna Mater – Cybele –, edo Mithra*, azken hau bereziki ezaguna armadako kideen artean. Beste jainko-jainkosa asko, ordea, ozta-ozta igaro ziren beren jatorrizko tokiko eremutik, baina, hala ere, kasu askotan ez zuten inolako arazorik izan inperioaren garaira arte irauteko.

Jainko erromatarren eta bertako jainkoen arteko bizikidetzak, adierazpen desberdinak ezagutu zituen. Tacito-ren testu ezagun baten bidez dakigunez, erromatarrek, atzerriko jainkoak, antzeko eskuduntzak edo eskumenak zituzten beren panteoiko jainko-jainkosekin identifikatzeko joera zuten, *interpretatio* terminoarekin ezagutzen dugun fenomeno baten bidez. Prozesu horren hurrengo urrats logikoari sinkretismo erlijiosoa esaten diogu, hau da, jainko erromatar bat eta bertako bat izen bikoitzeko bakar batean asimilatzen direnean, alegia. Azkenik, oso litekeena da jainko sinkretiko horiek azkenean jainko bakar batean sinplifikatzea, eta horrek, erromatar teonimoarenpean, errealitate kultural eta erritual erabat mistoak sortzea.

Erlijio-errealitateen mosaiko zabal horri, inperioaren garaitik aurrera, elementu berri bat gehitu behar zaio, hurrengo mendeetan sekulako indarra lortuko zuena. Hori kultu inperialarena izango da, enperadorearen – zein, batzuetan, haren familiako beste kide batzuen – hil osteko *consecratio* edo jainkotzean oinarrituko dena. Lehen mailako kohesio sozial eta politikoko elementu bat da, eta ondo kodifikatutako erakunde eta erritu ofizialak sortzen ditu. Hemendik aurrera, hiriek *flamineak* – apaizak – izango dituzte, enperadore hil eta jainkotuaren gurtzaz arduratuko diren karguak, baina baita eskola *augustalak* ere, enperadore biziaren *numen* – espiritua – ohoratzea helburu duten erakundeak. Udal-legeak – Bética-ko hainbat hiritan aurkitutakoak bezala – oso esplizituak izango dira erlijio-praxi mota hori arautzeko orduan. Bestalde, probintzietan ere kultu inperial berezia ezarriko da, apaizen edo apaizandreen eta *flaminen* eskutik. K.o. I. mendearen amaieratik eta hurrengo bi mendeetan, izan ere, ugaritu ziren kultu inperialeko jainko sinkretikoei egindako eskaintzak – *Marti Augusto, Herculi Augusto,* etab. – eta enperadore biziaren espirituarekiko *devotio* edo debozioa adierazten dutenei ere – *Genius Augusti* –. K.o. III. mendetik aurrera *numen* eta maiestate inperialen gurtza hedatuko da – normalean *devotus numini maiestatique eius* formularen bidez adieraziko dena, askotan modu laburtuan –.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

Baina, erlijio ofizial horretaz gain, Erromak bere historia osoan zehar beste kultura-adierazpen batzuk ezagutu zituen, eta horiek ere oso gogoan izan behar dira, erlijiotasun erromatarra osotasunean ulertu nahi badugu. Ildo horretan, aipatzekoa da, adibidez, Greziako munduan ugariagoa den baina Prenesteko Fortuna Primigenia bezalako zentro italikoetan ere ageri den orakulu-praktika. Bertan, fededunek beren etorkizuna kontsulta zezaketen, ontzi batetik mezu ilunak idatzita zituzten oholtxo batzuk — *las sortes* — aterata. Erlijioaren bizipen superstiziosoa ez zen gizarte-maila sozial xumeenen berezitasuna, gizarte erromatar osora hedatzen zen praktika baizik. Ugariagoak dira inskripzio apotropaikoak dituzten kutunak, edozein gaitzetatik babesteko balio zituztenak, edo eraikinak ere idazki magikoak zituzten teilekin babesten ziren, hala nola Virgilioren bertsoak, palindromoak edo karratu magikoak, edo, geroago, Testamentuen bertsetak edo krismoiak.

Babes-premia hori guztiz naturala zen besteen aurka madarikazioak botatzeko ohitura oso ohikoa zen mundu batean. Horretarako, madarikazioa idatziz jarri behar zen, ohikoena euskarri gisa xafla bat erabiltzea izan ohi zen, normalean berunezkoa, ondoren tolesten zena eta, batzuetan, iltze batekin zeharkatzen zena, eta hortik *defixio* izena hartzen zuen. Azkenik, botozko putzu batera jaurti edo espazio sakraturen batean edo nekropoli batean lurperatzen zen. *Defixioen* testuetan, batzuetan, infernuko jainkoen edo animalien marrazkiak agertzen ziren, bai eta letren sekuentzia magikoak ere; orokorrean, erregutzaileari zerbait ostu zion norbaiten aurka edo etsai baten edo aurkari baten aurka egiten zen madarikazioa; baina eduki erotikoa zutenak ere ohikoak ziren. Horrelako adierazpenek garai berantiarrera arte iraun izanak, erromatarren sinesmen-sisteman osagai magikoa eta esoterikoa sakon barneratu zela adierazten digu.

Hala ere, kristautasunaren ezarpenak inflexio-puntu erabakigarria eragin zuen erromatar epigrafia erlijiosoarentzat, baita kulturaren beste alderdi askorentzat ere, eta hori ordura arte ezagututako funtzio epigrafikoen bilakaeran edo eraldaketan islatu zen. K.o. IV. mendetik aurrera jainko paganoak desagertzen hasi ziren botozko inskripzioetatik, eta kultu inperialaren adierazpenek bakarrik jarraitu zuten denbora batez erlijio berriaren eraginpeko forma epigrafikoekin: elizak kontsakratzeko epigrafeak, objektu liturgikoei buruzko inskripzioak eta testu exegetikoak, adibidez. Horiek izango dira, oro har, Erdi Arora arte iraun zuten erlijio-adierazpen epigrafikoko forma berrietako batzuk.



8

ONDORIOAK



Erroma izan zen mendeetan zehar Mendebaldeko Europako globalizazioa garatu zuen lehen potentzia, bere mendeko lurraldeak konkistatuz eta kulturalki kolonizatuz. Ezin da ulertu gure egungo errealitatea haren ekarpenik gabe era guztietako esparruetan: hizkuntzan, zuzenbidean, idazketan, artean, ingeniaritzan, etab. Larunbeko aldareak testuinguru kultural eta politiko hartan kokatzen gaitu, eta garai hartako lekukotasun berri bat erakusten digu, gure lurraldean.

KRONOLOGIA: Aldare tipologiari, paleografiari, eskaintza formulari eta jainkotasunari erreparatuz, Larunbeko aldarearen kronologia K.o. I. mendearen bigarren erdialdean kokatu dezakegu.

ERRITUAL ETA KULTURA MATERIALA: Jainkoari harrizko aldare bat egin eta eskaintzea, emailea eta jainkoaren izena idatziz utzita, libazioetarako *focus* batekin gainera, errritual guztiz erromatar baten testigantza da.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

JAINKO-JAINKOSA ETA HIZKUNTZA: Larrahe izenaren azterketa linguistikoak, antzeko beste hiru adibiderekin duen loturaz gain, argi eta garbi baskoieraren testuinguruan kokatzen gaitu, hau da, euskararen aurrekari den hizkuntzan.

GENERO IKUSPEGIA: Aldarea erromatar hiritarra den emakume batek jainkoarekin duen harreman zuzenaren lekuko da. Ez dakigu irakurtzen zekien, baina ulertzen zuen idazkerak errituan zuen garrantzia.

KOKAPENA: Aldarearen kokapena Arriaundi mendiaren tontorrean izatea, leku honek eskaintzailearentzat eta haren komunitatearentzat izan zezakeen esanahi berezian pentsaraztera bultzatzen gaitu.

LURRALDEA: Larunbeko aldarea iparralderen zabaltzen den baskoierazko jainko izen eta idatzizko lekukotasuna da, eta ondorioz, orain arte ezagutzen zen lurralde-dimentsioa hareagotzen du.



Nekane Erviti, Larunbeko bizilaguna, Arriaundiko tontorrean eskaintza bat erreproduzitzen. 📷 2024. J. Agirre.

Arkeologia, gure iraganeko kultura materiala berreskuratu eta aztertzen duen zientzia den heinean, mendebaldeko Pirinioen inguruan idatzitako lehen testigantzak sortzen diren garaiko aztarna berriak eman diezazkigukeen iturria da. Froga objektiboak dira, eta Irulegiko eskuak bezala, informazio paregabea ematen digute une horretako sinesmenei, hizkuntzari, eraikinei eta beste zeinbait alorrei buruz. Lurraldean bertan sortutako testigantzak dira, bertako biztanleen eguneroko bizimoduari lotuak, eta Estrabon, Plinio, Tito Livio, Salustio eta beste hainbat idazle klasikok eskaini ziguten ikuspegi labur exogenoari gehitzen zaizkionak.

Hortaz, arkeologiaren lana funtsezkoa da Baskoniako lurraldean zehar, harrian edo metalean idatzita kontserbatu daitezkeen testuak berreskuratzeko, eta ondoren, hizkuntzalari, epigrafista eta aldi historiko horretan adituak direnek aztertu ahal izateko. Baina, gainera, arkeologiak bere testuinguruan topatzen ditu objektuak, indusketa arkeologiko batean aurkitutako Larunbeko aldarea bezala. Horrek guztiak beste material batzuekin lotzea ahalbidetzen du, besteak beste: eraikuntzekin, zeramikazko ontziekin, metalezko objektuekin edo hazien antzerako hondakin organikoekin. Horrek guztiak lurraldearekin, bertako bizimoduekin eta haien baliabideen aprobetxamenduarekin zuzenki harremanetan jartzen gaitu.

KRONOLOGIA: Erregistro estratigrafikoaren bidez, Larunbeko aldarea estaltzen zuen eta putzua betetzen zuen lur betekina dokumentatu da. Bi datazio erradiokarbonikoek XI. mendean kokatu dute, beraz, aldareak leku horretan darama, duela 900 urtetik gutxienez.

LEHENGAIA: Aldarea kalkarenitaz egina dago, Arriaundi mendian eta inguruan ugari den harkaitz motaz, hain zuzen ere.

KOKAPENA: Aldarea ez da bere jatorrizko kokapenean aurkitu: zutik egoteko, ikusteko eta irakurtzeko diseinatutako aldarea baita. Hala ere, putzu baten sakonean aurkitu da, bertan nahita utzita idazketa beheruntza begira. Bigarren mailako posizioa deitzen diogun egoera batean.

ASMOA: Zer asmorekin utzi zuten aldarea putzuaren hondoan? Ez dakigu. Harrizko azaleran egindako karakterizazioaren arabera, kalkarenitak ere kalteak izan ditu, normalean ingurune heze edo urtsu batean sortzen direnak. Horrek pentsarazten digu putzua urez beteta egongo zela eta aldarea haren azpian, ahalik eta XI. mendean datatutako sedimentuarekin putzua lurrez betea izan zen arte. Esan liteke putzura botatzeko ekintza hori egin zutenek aldarea babesteko asmoz egin zutela? Edo, gutxiesteko jarrera izan zen? Aldarea tontorreko amildegitik bota zezaketen, baina putzu batean utzi zuten.

KOKAPENA: Ia mila urteko aldea baldin badago ere, jainko-jainkosa pagano baten aldare bat eta monasterio kristau bat kokatzen dira bertan. Beraz, biak dira Arriaundi tontorrarekin lotutako sinesmen erlijiosoen segidaren lekuko.

TESTUINGURUA: Arriaundi oraindik ikertzen ari den aztarnategia da. Bertan, erromatar materialak eta Burdin Aroaren amaieran erabili zela pentsatzera bultzatzen duten aztarnak dokumentatu dira. Espero dugu egiten ari diren ikerketek erantzun gehiago ematea gure Antzinaroko komunikazio-bide nagusietako bat kontrolatzen zuen kokagune estrategiko honi buruz.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

LARUNBEKO ALDAREAREN DENBORA LERROA



2024. J. Larratxe.



9

IKERTZAILE TALDEA



Arriaundi bezalako leku bateko ikerketa arkeologikoak borondatea behar zuen, lurpean aurkitutako aztarna materialen bidez leku horretan gertatutakoa ezagutu nahi izatea, alegia. Erabaki hori Larunbeko komunitateak hartu zuen, eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri zen harremanetan, Euskal Herriko arkeologian trebatua den erakundearekin. Adierazi behar da, horretarako, ez dela baliabide ekonomikorik izan profesional-talde bat liberatzeko. Hala ere, azken hiru legegintzaldietan, Nafarroako Gobernuak irekitako finantzaketa-lerro bati esker, Foru Erkidegoan egiten diren ikerketa arkeologikoetan sortzen diren gastu batzuk ordaintzeko aukera eman da. Gainera, ikerketa lan hau aurrera ateratzeko aurrez aipautako laguntza horri, Itza Zendeako Udalaren babesa, bertako biztanleen auzolana eta Aranzadiko kideen zein unibertsitate desberdinetko adituen lan altruista gehituta behar zaio. Betiere ondarearen arloan indarrean dagoen legeria betez, eta Nafarroako Gobernuko Arkeologia Sailaren lankidetzarekin.

Juantxo Agirre-Mauleonek eraman du zuzendaritza arkeologikoa, Peio Esain eta Iosu Erviti Larunbeko bizilagunen etengabeko koordinazioarekin. Arkeologiaren arloan, tituludunen eta doktoreen belaunaldi berri batek parte hartu du, hala nola Oihane Mendizabal-Sandonísek, Mattin Aiestaranek, Josu Narbartek eta Dani Ruizek. Aitor Pescador historialariak, Nafarroako Erdi Aroko eta Aro Modernoko ikerketan adituak, hainbat artxibotan sakabanatutako dokumentazio idatzia bildu du. Mikel Legorbururen ardura izan dira azterketa numismatikoak. Pertsona horiek guztiek Aranzadiko Arkeologia Historikoko Sailekoak dira.

Javier Velaza Bartzelonako Unibertsitateko Filologia Latinoko katedradunak eta Joaquín Gorrochategui Euskal Herriko Unibertsitateko Linguistika Indoeuropar katedradunak garatu dute Larunbeko aldarearen testuaren azterketa epigrafikoa eta linguistikoa. Biak ala biak ibilbide luzeko ikertzaileak dira eta erreferentziazkoak bakoitza bere espezialitatean. Atal geologikoa Arantza Aranburuk eta Laura Damasek aztertu dute, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Geologia Saileko ikertzaileek. Erradiokarbono-datazioak Uppsala Unibertsitateak Suedian dituen laborategietan egin dira.

Zundaketa geoarkeologikoen ardura Eneko Iriarterena izan da, Burgosko Unibertsitateko ikertzailea dena, Josu Narbarte eta Mattin Aiestaranekin batera. Prospekzio geofisikoak SOT enpresak egin ditu, 2007tik harreman estua baitago enpresa horrekin, eta Ekhine Gartzia doktoreak zuzendu ditu. Topografia eta eskaneatze lanak Euken Alonsok egin ditu, geomatika eta topografiako ingeniariak.

Grafikoari dagokionez, Iker Iberok, ondarearen errekreazio birtualetan adituak, monasterioa berreraiki du, erromanikoaren arkitekturan aditua den Carlos Martínez Álavaren aholkularitzarekin. Argazkigintzari dagokionez, Juantxo Egaña, Iñigo Egia, Iosu Erviti eta José Luis Gorria izan ditugu. Ikus-entzunezko irudiak Iñigo Egiak grabatu ditu, Eider Conderen zuzendaritzapean.

Argitalpen hau publiko orori zuzenduta dago eta arkeologia eta gure historia gizarteratzea du helburu, baina, baita lan hau era altruistan posible egin duten pertsona guztiei ere, Larunbeko herritarrei eta komunitate zientifikoari, aitorpen idatzia eta grafikoa egitea ere badituelako helburu. Bi komunitate horiek bateratzerakoan, gure ondare arkeologikoak zentzu osoa lortzen baitu.



Mattin Aiestaran, Joaquín Gorrochategui, Juantxo Agirre, Javier Velaza eta Oihane Mendizabal-Sandonís Larunbeko aldarearekin, Nafarroako Gobernuko arkeologia biltegietan. 2022. J. Egaña.



Arantza Aranburu eta Laura Damas geologoak. 📷 2024. J. Agirre.



Oihane Mendizabal-Sandonís arkeologoa eta Iker Ibero, berregite birtualetan aditua. 📷 2024. J. Egaña..



Aitor Pescador, historialaria eta dokumentalista. 📷 2024. I. Pescador.



Euken Alonso, geomatikako ingeniaria; Juantxo Egaña, argazkilaria; Iñigo Egia, kameraria. 📷 2023. J. Agirre..

2022ko abuztuaren 27ko auzolaneko partaideak,
Larunben aurkitu berri den aldarearekin.

1	Eduardo	Goikoa
2	Aitor	Martiarena
3	Rodolfo	Roldan
4	Oier	Martiarena
5	Iñaki	Aranzadi
6	Maitane	Gorostieta
7	Nekane	Erviti
8	Aritz	Biurrarena
9	Patxi	Baraibar
10	Iosu	Erviti
11	Jose Luis	Goikoa
12	Maria	Artieda
13	Juan	Barriola
14	Jesus Mari	Erviti
15	Unai	Gorostieta
16	Patxi	Gorostieta
17	Luis	Martiarena
18	Lourdes	Roldan
19	Javier	Erbiti
20	Ignacio	Erviti
21	Begoña	Narcué
22	Sergio	Erice
23	Amaia	Goikoa
24	Mikel	Muruzabal
25	Eider	Goikoa
26	Jon	Erice
27	Jaione	Erviti
28	Jose Ignacio	Martiarena
29	Silvia	Larrea
30	Marimar	Martiarena
31	Juantxo	Agirre
32	Unai	Oroz
33	Amets	Omenal
34	Nazaret	Laranjeira
35	Isabel	Laranjeira
36	Izarne	Omenal
37	Begoña	Churio
38	Iradi	Martiarena
39	Olaia	Goikoa
40	Peio	Esain
41	Eneko	Erbiti
42	Arhane	Martiarena
43	Ibai	Muruzabal





9

BIBLIOGRAFIA



BIBLIOGRAFIA

Abascal, J. M. 2015. Escritura, hábito epigráfico y territorio en la Navarra romana. Príncipe de Viana 76, 261, 40-71.

Agirre-Mauleon, J., Pescador, A., Esain, P., Alonso, E. 2021. El monasterio altomedieval de Doneztebe (Larunbe). Trabajos de Arqueología Navarra 33, 199-207.

Agirre-Mauleon, J. (ed.). 2023. Irulegi. La mano de Irulegi, un testimonio epigráfico del siglo I a. C. en el Valle de Aranguren. Nafarroa Arkeologia Auzolana 1. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia-San Sebastián.

Agirre-Mauleon, J., Pescador, A., Esain, P., Alonso, E. 2023. Un ara romana en el monasterio altomedieval de Doneztebe (Larunbe). Trabajos de Arqueología Navarra 35, 261-267.

Aguarod Otal, M. C. 2017. Cerámica común de mesa y de cocina en el valle del Ebro y producciones periféricas. Fernández Ochoa, C.; Morillo Cerdán, A., Zarzalejos Prieto, M. (eds.). Manual de cerámica romana III: cerámica común de mesa, cocina y almacenaje. Imitaciones hispanas de series romanas. Otras producciones. Museo Arqueológico Regional y Colegio Oficial de Doctores y Licenciados en Filosofía, Letras y en Ciencias, Sección de Arqueología. Madrid. 15-95.

Andreu, J., Peréx, M. J. 2009. Los Vascones de las fuentes clásicas en época romana: crónica historiográfica (2004-2008). In: Andreu, J. (ed.), Los Vascones de las fuentes antiguas, 147-168. Universitat de Barcelona.

Armendáriz Martija, J. 2008. De aldeas a ciudades. El poblamiento durante el primer milenio a.C. en Navarra. Gobierno de Navarra, Departamento de Cultura y Turismo-Institución Príncipe de Viana. Iruñea/Pamplona.

Artica Rubio, E. 2011. Júpiter en los Pirineos. El mundo religioso vasco-aquitano, una aproximación. Aquitania 27, 151-178.

Arias Ferrer, L. 2008. La circulación monetaria en la Hispania del siglo II d.C. Historia y evolución de la Península Ibérica a través de la documentación numismática. Universidad de Alicante. Tesis doctoral.

Armendáriz Aznar, R. M., Mateo Pérez, M. R. 2009. Santa María de Zamartze (Uharte-Arakil). Resultados de la intervención arqueológica. Trabajos de Arqueología Navarra 21, 293-317.

Bonthorne, E., Valle de Tarazaga, F. J. 2017. Santa María de Zamartze: investigación en la necrópolis medieval y la mansio romana de Aracaeli [Santa María de Zamartze: Investigation of themedieval necrópolis and Roman mansio]. Trabajos de Arqueología Navarra 28, 233-243.

Carandini, A. 1997. Historia en la tierra. Crítica, Barcelona.

Castiella Rodríguez, A. 2003. Por los caminos romanos de Navarra. Fundación Caja Navarra. Iruñea/Pamplona.

Cepeda Ocampo, J. J. 1997. La circulación monetaria romana en el País Vasco. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología 8, 259-302.

Esteban Delgado, M. Martínez Salcedo, A. Ortega Cuesta, L. A., Alonso Olazabal, A., Izquierdo Marculeta, M. T., Réchin, F., Zuluaga Ibargallartu, M. C. 2012. La cerámica común romana no torneada de difusión aquitano-tarraconense (a. II a.C. - s. V d.C.): estudio arqueológico y arqueométrico. Kobie Serie Anejo 12.

Faci Paricio, E., Galán Pérez, G. 1995. Cartografía Geológica de Navarra. Escala 1:25.000. Hoja 115-I. Irurzun. Gobierno de Navarra.

Fernández Ochoa, C., Morillo, A., Zarzalejos Prieto, M. 2015. Manual de cerámica romana II. Cerámicas romanas de época alto imperial en Hispania. Importación y producción. Museo Arqueológico Regional y Colegio Oficial de Doctores y Licenciados en Filosofía y Letras y en Ciencias, Sección Arqueología. Alcalá de Henares y Madrid.

Gorrochategui, J. 1987. Situación lingüística de Navarra y aledaños en la antigüedad a partir de fuentes epigráficas. Primer Congreso General de Historia de Navarra II, 435-445. Gobierno de Navarra, Pamplona.

Gorrochategui, J. 1994. La aportación de la lingüística a la reconstrucción del poblamiento prehistórico del Pueblo Vasco. Ilunzar 94,113-125.

Gorrochategui, J. 1995a. Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas. Veleia 12, 181-234.

Gorrochategui, J. 1995b. 1995b. Basque and its Neighbors in Antiquity. Hualde, J.I., Lakarra, J.A., Trask, R.L., (ed.). Towards a History of the Basque Language. Current issues in linguistic theory 131, 31-63. Amsterdam – Philadelphia.

Gorrochategui, J. 2009. Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüísticas. Palaeohispanica 9, 539-555.

Gorrochategui, J. 2013. Révisions épigraphiques du corpus des dédicaces votives de la province d'Aquitania. Théonimie celtique, cultes, interpretatio. Keltische Theonymie, Kulte, interpretatio: X. Workshop F.E.R.C.A.N., Paris, 25-44.

LARRAHE
K.o. I. mendeko baskoien aldare bat Larunben

Gorrochategui, J. 2018. La lengua vasca en la Antigüedad, Gorrochategui, J., Igartua, I., Lakarra, J.A.(eds.), Historia de la Lengua Vasca, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, 245-305 (= J. Gorrotxategi, J. Euskara antzinatean, Gorrotxategi, J., Igartua, I., Lakarra, J.A.(arg), Euskararen Historia, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 231-286).

Gorrochategui, J. 2020a. Aquitano y Vascónico. Palaeohispanica. Revista sobre lenguas y culturas de la Hispania antigua 20, 2, 721-748.

Gorrochategui, J. 2020b. Vascónico-Aquitano: Lengua – Escritura – Epigrafía [AELAW Booklets on The Ancient European Languages and Writings 9], Zaragoza: Prensas de la Universidad de Zaragoza.

Gorrochategui, J. 2024. La documentación lingüística del espacio vasco-aquitano en la antigüedad. Arrizabalaga, A., Gorrochategui, J., Ortiz de Urbina, E. (eds.). Entre el Ebro y el Garona. Espacios, sociedades y culturas durante la Prehistoria y la Antigüedad [Veleia. Series Minor 43], 313-361, Vitoria / Gasteiz: Universidad del País Vasco.

Gorrochategui, J., Ramírez Sádaba, J. L. 2013. La religión de los vascones. Una mirada comparativa. Concomitancias y diferencias con la de sus vecinos. Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra 21, 113-149.

Gorrochategui, J., Zaldua Etxabe, L.M. (en prensa). Dos nuevas aras con divinidades vascónicas en Navarra / Nafarroa. Veleia 42 (en prensa).

Harris, E. 1991. Principios de Estratigrafía Arqueológica. Crítica, Barcelona.

Martínez Álava, C. 2016. Todo el románico de Navarra. Fundación Santa María la Real. Aguilar de Campo.

Mendizabal Sandonís, O. 2023. La conformación del paisaje romano en un territorio del Pirineo occidental: el paso de Ibañeta y la cuenca del Urrobi (I a.C.-V d.C.). UPV/EHU. Tesis doctoral.

MOLA (Museum of London Archaeology), 1994. Archaeological site manual. Museum of London, London.

Morillo Cerdán, A., Zarzalejos Prieto, M. (eds.). 2017. Manual de cerámica romana III: cerámica común de mesa, cocina y almacenaje. Imitaciones hispanas de series romanas. Otras producciones. Museo Arqueológico Regional y Colegio Oficial de Doctores y Licenciados e Filosofía, Letras y en Ciencias, Sección de Arqueología. Madrid. 15-95.

Lanz, J. J. 2020. Los vascones y sus vecinos (siglos II a.C. – VIII d.C.). Gobierno de Navarra. Pamplona.

Payros, A. 1997. El eoceno de la Cuenca de Pamplona: estratigrafía, facies y evolución paleogeográfica. Tesis Doctoral UPV/EHU. 403p.

Pescador, A. J., Esain, P., Agirre-Mauleon, J. 2024. Larunbe en su historia. Desde la cima de Arriaundi hasta el Valle de Gulina. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Larunbe.

Ruiz-Zapatero, G. 2013. La excavación arqueológica. In: García-Diez, M., Zapata, L. (ed.), Métodos y técnicas de análisis y estudio en arqueología prehistórica: de lo técnico a la reconstrucción de los grupos humanos, 39-72. UPV/EHU.

San Vicente González de Aspuru, J. I. 1999. Circulación monetaria en Hispania durante el siglo IV d.C. Museo Casa de la Moneda. Madrid.

Terrón Alfonso, A. 2016. Líquenes y rocas como ejemplo de interacción entre subsistemas terrestres. Enseñanza de las Ciencias de la Tierra, 24.2, 143-152.

Torregaray Pagola, E. 2008. Vascones en la Antigüedad: entre la historia y el mito. Boletín Arkeolan 15, 59-72.

Urteaga, M., Alkain, P. 2019. Calzado, tejido y otras colecciones orgánicas en Oiasso (Irun). Morillo Cerdán, A., Hermanns, M. H., Salido Domínguez, J. (eds.): Ephemeral Archaeology Products and perishable materials in the archaeological record of Roman times. Nünnerich-Asmus Verlag & Media. Mainz.

Velaza, J. 1995. Epigrafía y dominios lingüísticos en territorio de los vascones. Beltrán, F.(ed.) Roma y el nacimiento de la cultura epigráfica en occidente, 209-218. IFC, Zaragoza.

Velaza, J. 2009. Epigrafía y literacy paleohispánica en territorio vascón: notas para un balance provisional. Palaeohispanica 10, 611-622.

Velaza, J. 2012. El Vasco antiguo y las lenguas vecinas según la epigrafía. Igartua, I. (ed.), Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar, 75-84. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

Velaza, J. 2019. Crónica de epigrafía antigua de Navarra V. Príncipe De Viana 272, 1027-1042.

Zaldua Etxabe, L. M. 2022. Euskal Herriko aintzinaroko Jainko eta Jainkosen izenak. Izenak bilduma 11. Euskaltzaindia.

LARRAHE
Larunbe mendiko larreetatik
Larraintzizko iturrira,
Larraun ibaian sartu arte
ura bere bidean.

2022. J. Egaña.

Arriaundiko airetiko ikuspegia, atzean Larraintziz eta sakonean Arakil bailara. 2021. I. Erviti.